

Espetxeetako funtzionarioek eta  
haien familiek ETaren mehatxuaren  
ondorioz jasan duten bidegabekeriari  
buruzko txostena  
(1980-2011)

---

Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua,  
Deustuko Unibertsitatea

Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzaren Sailburuordetza  
Eusko Jaurlaritza

---

Bilbo, 2023ko abendua



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Espetxeetako funtzionarioek eta  
haien familiek ETaren mehatxuaren  
ondorioz jasan duten bidegabekeriari  
buruzko txostena  
(1980-2011)

---

Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua,  
Deustuko Unibertsitatea

Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzza Sailburuordetza  
Eusko Jaurlaritza

---

José Ramón Intxaurbe Vitorica  
Gorka Urrutia Asua  
Trinidad L. Vicente Torrado

Bilbo, 2023ko abendua



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2024



Espetxeetako funtzionarioek eta haien  
familiek ETaren mehatxuaren ondorioz  
jasan duten bidegabekeriari buruzko  
txostena  
(1980-2011)

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan dago:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

**Argitaraldia:**

1a, 2024ko ekaina

**Ale-kopurua:**

110 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Justizia eta Giza Eskubideen Saila

**Internet:**

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Editorea:**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

**Diseinua eta maketazioa:**

Quod Sail S.L.

**Inpresioa:**

Eusko Jaurlaritzaren Inprimaketa eta Erreprografia Zerbitzua

**L.G.:**

LG G 410-2024

**ISBN:**

978-84-457-3766-8

1.- Edukia eta denbora-esparrua	5
1.1.- Txostenaren edukia eta enkarguaren justifikazioa	
1.2.- Txostenaren helburuak eta egitura	
1.3.- Metodologia	
2.- Egoera sozial eta politikoa. Azterlanaren esparru kronologikoaren erreferentzia laburra (1980-2011)	8
3.- Datuen azterketa eta balorazioa	10
3.1.- Datu kuantitatiboen azterketa	
3.2.- Datu kualitatiboen azterketa eta balorazioa	
3.2.1.- Bokazio profesionala eta espetxeetako funtzionariotzan sartzea	
3.2.2.- Mehatxuak eta mehatxu-adierazpenak	
3.2.3.- Errutinak, babes-neurriak eta egunerokotasunean duten eragina	
3.2.4.- Espetxeen eta haietan lan egiten duten pertsonen ezaugarriak	
3.2.5.- Egoerari aurre egiteko neurriak. Erakundeen eta gizartearen erantzunak	
3.2.6.- ETako presoen eta espetxeetako funtzionarioen arteko harreman berezia	
3.2.7.- Oroimena eta memoria kolektiboaren eraikuntza	
4.- Atzeman diren giza eskubideen urraketen kalifikazioa	35
5.- Ondorioak eta gomendioak	37
5.1.- Memoria eta egia. Espetxeetako funtzionarioen estigma	
5.2.- Justizia eta erreparazioa. Biktimen eta biktimarioen arteko harreman berezia	
5.3.- Gizartearen adiskidetzea eta kohesioa. Aitortzaren garrantzia	
5.4.- Prozesu hau gauzatzeko Eusko Jaurlaritzari aurkeztutako iradokizunak	
6.- Bibliografia	44

---



# 1.- Atarikoa. txostenaren helburua, edukia eta denbora-esparrua

## 1.1.- Txostenaren edukia eta enkarguaren justifikazioa

Udaberri 2024 – Bizikidetzaren, Giza Eskubideen eta Aniztasunaren Planean, 2021eko irailean onartu baitzen, 2. lehentasunean (Giza eskubideen agenda globala) eta 8. lerroan (“Herriarrak prestatzea, sentsibilizatzea eta ahalduntzea, giza eskubideekiko konpromisoa aktibatzeke”), oraintsuko memoriari buruzko ikerketak eta txostenak egitea aurreikusten da. Planak berak dio txosten eta azterlan horiek unibertsitateekin eta haien lotutako jakintzagunekin lankidetzan egingo direla; izan ere, unibertsitateak funtsezko eragileak dira —eta hala jarraituko dute izaten— kogenerazio eta interakzio anizkoitzeko eta sareko prozesuetan.

Ingurumari horretan, 2022ko erdialdean, Giza Eskubideen, Memoriaren eta Lankidetzaren Sailburuordetzak txosten bat enkargatu zion Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuari, ETaren indarkeriak Euskal Autonomia Erkidegoko mehatxu terroristaren ondorioz espetxeetako funtzionarioengan izan zuen eragina jasotzeko eta aztertzeko.

Helburu hori lortzeko, oso garrantzitsua izan da Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren lankidetzak, bai eta EAEko hiru espetxeetako (Zaballa, Martutene eta Basauri) zuzendaritzen laguntza ere. Zuzendaritza horiek informazio baliotsua eman digute, eta, gainera, elkarrizketatu beharreko pertsonak identifikatzen eta aurkitzen lagundu digute, proposatutako metodologia kualitatiboa garatzeko. Horregatik, bide batez, eskerrak eman nahi dizkizuegu.

Enkarguak 1980tik 2011ra bitarteko aldia ezarri zuen azterketarako. Baina ez zuen lurralde-eremu jakin bat mugatu. Hala ere, ikerketaren hasierako fasea ezarri ondoren, azterlanaren irismena egungo Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremura mugatzea erabaki zen, arrazoi batengatik, batez ere: mehatxu-egoera gehienak lurralde honetan gertatu ziren, eta aurrerago jasotzen diren testigantzak eta kasuistikak espetxeetako funtzionarioek oro har bizi izan dituzten egoeren adierazgarri egokiak dira. Zehazki, azterlan honek hiru lurralde historikoetako batean bizi diren eta Euskadiko hiru espetxeetakoren batean lan egiten duten pertsonak izan ditu ardatz. Horrek ez du esan nahi, haatik, beste autonomia-erkidego batzuetako espetxeetako funtzionarioek jasandako sufrimendua ahazten dugunik, ez eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin mugakide diren autonomia-erkidegoetatik egunero euskal espetxeetan lan egitera etorri ohi ziren pertsonak ere, zeinak lanaldia amaitutakoan beren bizilekuetara itzultzen baitziren, gizarte- eta familia-jarduerak garatzeko ingurune seguruagoak behar baitzituzten. Hala eta guztiz ere, ez zeuden ETaren mehatxutik salbu. Espero dugu txosten honek balio izatea espetxeetako funtzionarioen kolektibo osoak bizi izan duen sufrimenduaren aitortza gisa.

Espetxeetako funtzionario guzti-guztiek, salbuespenik gabe, jasan zituzten beren eskubideen urraketa larriak, eta ETaren biktima izan ziren, haren mehatxuaren xede. Eta guztiek merezi dituzte, salbuespenik gabe, egia, memoria eta aitortza. Printzipioen adierazpen honetatik abiatuta, txosten honek kolektibo horren barruko talde batean jartzen du arreta bereziki: EAEko kartzeletakoren batean lan egiten zuten eta bizi ere Euskadin bertan bizi ziren espetxeetako funtzionarioena, haien aurkako mehatxuak familia- eta gizarte-inguruneari zuzenean eragiten ziolako eta horrek konnotazio berezi batzuk zituelako.

---

## 1.2.- Txostenaren helburuak eta egitura

Ikerketa honen helburuak enkarguan bertan datoz zehazturik, eta txostena bera egituratzen dute; honela hain zuzen ere:

- ETAREN indarkeriaren esparruan EAEko espetxeetako funtzionarioek jasandako sufrimenduaren deskribapen kuantitatibo labur bat eta kualitatibo sakonago bat eskaintzea, jasandako sufrimendu horren inplikazioen eta ondorioen inguruan sakonduz, protagonisten beren kontakizunaren arabera.
- Kolektibo horren bizipenak eta sufrimenduak agerian jartzen dituzten el ementuak plazaratzea, zer gertatu zitzaien jakiteko eta EAEko gizarteak memoria kolektiboaren inguruko hausnarketa egin ahal izan dezan;
- Botere publikoei memoriaren eta elkarbizitzaren inguruko politikak eratzeko proposamenak eskaintzea.

Helburu horiek lortzeko, azterlan hau zenbait informaziotan oinarritzen da, bai datu kuantitatiboei dagokienez, bai gai kualitatiboagoi dagokienez ere, Euskadiko espetxeetako funtzionarioen bizipenari buruz. Osagai kuantitatiboa dela eta, helburua da, eskura dagoen informazioan oinarrituta, espetxeetako funtzionarioek denbora-tarte horretan bizi izan zuten mehatxu-potentzialaren ikuspegi orokorra eskaintzea. Bigarrenik, txostenaren erdiguneari begira (osagai kualitatiboa), ETAREN indarkeriaren mehatxuaren testuinguruan kolektibo horrek bizi izan duen egoera irudikatzen duten lekukotzak eta bizipen enblematikoak biltzean oinarritzen da lana. Horretarako, elkarrizketatuko pertsonen laginaren diseinuan askotariko pertsonen egoerak eta profilak hartu dira kontuan. Azkenik, eta aurreko ataletan heldutako emaitzen ondorioz, txostenak memoria- eta bizikidetza-politiketarako proposamenak eta neurriak identifikatu eta jasotzen ditu. Helburu horiek betetzeko, ikerketa-taldeak honako eduki hauen arabera egituratu du txosten hau:

- a) Denbora-eremuaren testuinguru historiko laburra. Aurreko txostenetan bezala, testuinguru historiko labur bat jasoko da, espetxeetako funtzionarioek bizi duten errealitatean kokatu ahal izateko.
- b) ETAREN atentatuei eta eraildako edo bahitutako funtzionarioei buruzko datu kuantitatiboen azterketa.
- c) Bizi-istorioen azterketa, protagonistek berek (espetxeetako funtzionarioak) kontatuta, ETAREN indarkeriak haien bizitzetan izan duen eraginean sakontzeko.
- d) Atzeman diren giza eskubideen urraketen kalifikazioa. Aurreko ataletan azaldu den informazioan oinarrituta eta egindako azterketa kualitatibotik abiatuta, gertaeren kalifikazio juridiko bat proposatzen da, kontuan edukita gertaera haiek giza eskubide jakin batzuen urraketak izan zirela eta erasoak jasandako pertsonen ez zutela eduki inolako baliabide juridikorik beren eskubideen defentsarako ez erreparaziorako.
- e) Amaierako balorazioak. Ikertzaileen lantaldeak ondorio horiek txostenean aztertutako datuen argitan aletuko ditu, egiak, justiziak eta erreparazioak osatzen duten hirukotea abiapuntu hartuta. Atal honetan, halaber, espetxeetako funtzionarioen kolektiboak (eta haien familiek) jasandako bidegabeko sufrimendua aintzatesten eta iritzi publikoaren artean zabaltzen lagundu dezaketzen zenbait iradokizun jasotzen dira; izan ere, egoera horren inguruko



kontzientzia, enpatia eta eztabaida ezinbestekoak dira bortxa terrorista jasan dutenentzako kontakizun kolektibo bidezko eta erreparatzailea lortzeko.

f) Erabilitako bibliografia.

### 1.3.- Metodologia

Enkarguaren helburuetan ezartzen den bezala, txostenaren helburua da ETaren indarkeriaren aurrean EAEko espetxeetako funtzionarioek bizi izan duten egoerara hurbiltzea, bai eta mehatxu terrorista hori desagertu arte haren eguneroko bizitzan izan duen eraginera ere.

Ikerketa honen helburuei heltzeko, aurreko lerroetan adierazi den moduan, azterlanaren xede den kolektiboaren errealitatera kuantitatiboki eta kualitatiboki gerturatu gara. Aztertzen diren datu kuantitatiboek espetxeetako memorieta dute jatorria, bai eta eskuragarri dauden beste iturri batzuetan ere. Horiei esker, txosten honen xede den kolektiboak bizi izandako sufrimenduaren dimentsioak deskribatu ditugu, oso modu oinarrizkoan bada ere, barne hartuta ETaren atentatuetan hil ziren kolektibo horretako pertsonen zerrenda.

Azterlanaren mamia, baina, osagai kualitatiboa da, kolektibo hori osatu duten pertsonen bereizgarritasun eta bizipenetatik abiatuta. Ikuspegi kualitatiboak bizi-istorioak ezagutzeko aukera ematen digu, eta, gainera, zenbaki hutsek ez bezala, erakusten digu indarkeria terrorista hainbat modutara gauzatu zela, eta argitzen du nolako kaltea egin zien erasandako agenteen lanbide-jardunari eta haien osasunari, nola zabaldu zen indarkeria hori pixkanaka agenteen familietara eta nola jarri zuen kolokan haien egonkortasuna. Horretarako, aurrez aurreko elkarrizketa erdiegituratuak egin dira; hala, solas irekien bidez, elkarrizketatuek beren testigantzen berezitasunak azaldu zituzte. Elkarrizketatutako pertsona guztiek beren borondatez hitz egin dute, ikerketa honen helburuez jakitun zirela. Baina, halaber, gertakari, egoera eta bizipen bereziki mingarriak gogora ekarri behar izan zituzte maiz. Horregatik guztiagatik, eta egin duten ahalegin eskubazal eta hartu duten ardurarik gabe txosten hau ezinezkoa izango litzatekeelako, haienganako gure esker on zintzoa erakutsi nahi dugu.

Haien istorioei esker, sakon-sakonetik ezagut dezakegu bizi izan duten bidegabekeria, zergatik eta lanbide jakin bat aukeratze hutsagatik, gehien kasuan zerbitzu publikorako bokazio sozial azkar batek bultzaturik. Eta hori guztia, gure inguruko leku gehienetan espetxe-eremuko lanak duen estigma soziala gorabehera. Ingurune horietan, eta sozialki "kartzelari" gisa onartua zaien kondizioaren erruz, ezjakintasun, interes gabezia eta gaitzespen sozial handia erakusten ditu maiz gizarteak, nahita eta jakitun, presoenganako eta espetxeekin zerikusia duen guztiarekiko. Horretan laguntzen du, ziurrenik, errealitate horri buruz literaturan, zineman eta telebistan proiektatzen den irudiak; irudi hori, gehienetan, negatiboa eta distortsionatua baita. Eta esparru horretan lan egiten dutenak biltzen ditu. Horri erantsi behar zaio, kasu zehatz honetan, horrelako lanbide ageriko batean jarduteak berez dakarren nabarmentasun soziala ez ezik, baita ere askotan lanbidez harago familiaguneko beste kide batzuek ere jasaten zuten jazarpena. Horrek nabarmen areagotu zuen jasandako estresa; kolektibo horren bizi-kalitateari eragin zion, eta, batzuetan, gaur egun ere irauten duten ondorioak utzi zituen osasunean.

Azterlan honetarako bildutako bizi-istorioen xedea da herritarrei hausnarketarako elementu bat helaraztea, fenomeno horren memoria kolektiboa eratzen laguntzeko

---

(istorioen zati batzuk azterketa kualitatiboaren atalean ageri dira), eta, halaber, aitortza publikoa egitea segurtasun publikoa zaintzeko funtsezko lana egiten ari zirela etengabeko jazarpena jasan zuten emakumei eta gizonei, bai eta haien ingurune hurbilekoei ere. Izan ere, garrantzitsua da nabarmentzea gure espetxeetan zigor askatasun-gabetzaileak betetzen ari diren pertsonak birgizarteratzeko espetxeetako funtzionarioek egiten duten lan estrategikoa, etorkizunean presoak birgizarteratzeari begira.

Emandako datu kuantitatibo eta kualitatiboak aztertuta, ETAko indarkeriak Euskadin bizi eta lan egiten duten espetxeetako funtzionarioen bizitzetan izan dituen efektuak eta ondorioak aztertu dira, giza eskubideek ezartzen duten parametro etiko-juridikoaren bidez. ETAREN indarkeriaren eta erasoen ondorioz espetxeetako funtzionarioei urratu zitzaizkien —eta indarreko araudietan jasota dauden— printzipio eta askatasunak aztertuko ditugu (Konstituzioan aitortutakoak, adibidez, eta nazioarteko tratatuetakoak).

## 2.- Egoera sozial eta politikoa. azterlanaren esparru kronologikoaren erreferentzia laburra (1980-2011)

### *1980-1989 aldia*

Laurogeiko hamarkadan jarduera terrorista handia izan zen, aurreko urteetan jadanik hasia zena. Izan ere, 1980. urtea Trantsizioko urterik bortitzena izan zen: urte hartan jardunean ari ziren talde terrorista guztien artean 100 pertsona baino gehiago hil zituzten. 1980ko martxoaren 9an Eusko Legebiltzarrerako lehen hauteskundeak egin ziren. 1981eko otsailaren 4an HBko hautetsiek «Eusko gudariak» kantatu zuten Gernikako Batzar Etxean, Juan Carlos I.a hitz egiten ari zela. Eta 1981eko otsailaren 23an estatu-kolpeak huts egin zuen. 1981ean, *Asociación de Víctimas del Terrorismo* (Terrorismoaren Biktimen Elkarte) eratu zen. 1982ko urrian, PSOEk gehiengo osoa lortu zuen Kongresuan eta Senatuan. 1983ko urrian, José Ignacio Zabala eta José Antonio Lasa desagertu egin ziren, eta GAL taldeak (Talde Antiterrorista Askatzaileak) ETAREN aurka gerra zikina abiarazi zuela aipatzen hasi zen. Espetxeetako langileei dagokienez, 1983ko urriaren 14an ETAK Alfredo Jorge Suar Muro hil zuen, Puerto de Santa María espetxeko mediku pediatra eta doktorea; espetxeei lotutako lehen hildakoa izan zen. Egun batzuk geroago, ETAK komunikatu bat zabaldu zuen, eta, bertan, erantzukizuna bere gain hartu eta espetxe-funtzionario guztiengana hedatu zuen mehatxua.

1988ko urtarrilaren 12an, Euskadi Normaltzeko eta Baketzeko Hitzarmena sinatu zen, Ajuria Eneko Ituna ere esaten zaiona. Handik urtebetera, 1989ko urtarrilaren 8an, ETAK alde bakarreko su-etena deklaratu zuen (ekainaren 24ra arte luzatu zen), Aljerreko elkarrizketak deritzen haien esparruan. Baina elkarrizketak bertan behera gelditu ziren apirilaren 4an, eta ETAK bere jardun terroristari ekin zion: apirilaren 14an, José Calvo de la Hoz Guardia Zibileko sarjentua hil zuen Getxon. 1989ko abuztuaren 11n, ETAK bonba-pakete bat bidali zion Dionisio Bolívar Muñoz espetxe-funtzionarioari; bonbak haren ama hil zuen, Conrada Muñoz Herrera, Montillana herriko bere etxean (Granada) paketea ireki zuenean. Leherketak haren beste seme bat eta iloba bat ere zauritu zituen. Urte horretan bertan hasi zen ETAko presoan

sakabanatze-politika, Felipe Gonzálezen gobernupean eta haren justizia-ministro Enrique Múgica bultzatuta.

### *1990-1999 aldia*

Espainiako Gobernuak eta ETAK Aljerren izandako elkarrizketek porrot egin ostean, laurogeita hamarrek hamarkadaren hasieran talde terroristak Estatuaren aurkako erasoaldia areagotu zuten. 1992ko nazioarteko ekitaldi garrantzitsuez baliatzeko, jarduera terrorista nabarmen handitu zen hamarkada horretako lehen urteetan.

1990eko martxoaren 13an, Ángel Jesús Mota Iglesias Martuteneko espetxeko funtzionarioa tirokatu eta hil egin zuten kalean, seme jaioberria besoetan zuela, emazteak Donostiako denda noiz itxiko zain zegoela.

1993ko urtarrilaren 22an, José Ramón Domínguez Burillo espetxeetako funtzionarioa tirokatu zuten, lanerako bidean zihoala.

1992ko martxoan, ETAREN buruzagitza atxilotu zuten Bidarten. ETAREN ahultasuna HB barruan piztutako eztabaidekin batera iritsi zen; horien bidez Ajuria Eneko Itunak ekarri zuten bakartasuna gainditzeko estrategia bat zehaztu nahi zen. Garrantzi handiko zenbait agirik aldi horren amaiera ekarri zuten. HBren Oldartzen ponentziak eta ETAREN *Zuzen 79* eta KASen *Karramarro* dokumentuek agerian utzi zuten antolakundeok estrategia berriak bilatzen zituztela. 1995ean, HBk *Oldartzen* ponentzia onartu zuten; honela zioen: “estamos obligados a adecuar nuestra línea de intervención”. Ez zen sufrimenduaren sozializazioaren kontzeptua aipatzen, baina, ustez, garai horretan hasi ziren oro har jazarpen-indarkeriaren estrategiak martxan jartzen. *Zuzen 79* barne-dokumentutik ondorioztatzen da ETAK erabakia zuela PP eta PSOE alderdietako politikarien aurkako atentatuak egitea. KASen *Karramarro* txostenak honela definitu zuen kale-borroka: “ezker abertzaleak lortutako kapital nagusia”.

1995. eta 1996. urteak bereziki biziak eta gogorrak izan ziren kale-indarkeriari dagokionez, baina 1997. urtetik aurrera beherakada bat hasiko da (2001ean eta 2008an goraldi batzuk izan ziren). Adibide gisa: 1995ean, urteko 365 egunetatik 136 egunetan izan ziren kale-borrokako ekintzak. Ardanza lehendakariak Eusko Legebiltzarrean aitortu zuen kale-borrokak gainditu egin zuela, neurri batean, prebentziorako eta defentsarako mekanismoen bidez erantzuteko ahalmena.

ETAK zenbait talde gogor estigmatizatu zituen sufrimenduaren sozializazioaren strategiaren bidez. Aldi horretan, talde horiek iritzi publikoan eragin handia izan zuten atentatu latzak jasan zituzten. Garai hura izan zen, izan ere, mehatxatutako kolektibo gisa espetxeetako funtzionarioak gogorren jo zituen sasoa. Orduan bahitu zuen ETAK José Antonio Ortega Lara, 532 egunez (1996ko urtarrilaren 17tik 1997ko uztailearen 1era arte); ETAK inoiz egindako bahiketa luzeena. Eta 1997ko martxoaren 11n, Francisco Javier Gómez Elósegui, Martuteneko espetxeko psikologo funtzionarioa, lanera bidean etxetik atera eta tiro bat jaso ondoren bertan hil zen.

Eta udal-hautetsiak ere mehatxatu zituzten: Miguel Ángel Blanco bahitu eta hil ondoren, ETAK EAEko zenbait herritako PPko beste zinegotzi batzuen aurkako atentatuak egin zituen, PP orduan Espainiako gobernuaren agintean baitzegoen. Miguel Ángel Blancoren hilketaren ondoren egin ziren manifestazio eta kontramantestazioetan nabarmen areagotu zen tirabira. 1998ko irailaren 16an, ETAK “alde bakarrek, erabateko eta muga-egunik gabeko” su-etena iragarri zuen. 1999ko

---

ekainaren 13ko udal hauteskundeak ETAREN hilketarik gabe demokrazian egin ziren lehenengoak izan ziren.

### *2000-2011 aldia*

Su-etenak irauten duen 438 egunetan (1999ko abendura arte) elkarrizketak izan ziren Espainiako Gobernuko ordezkarien eta ETAREN artean. Su-etena amaitu zenean, PSEko eta PPko buruzagi eta hautetsien aurkako atentatu gehiago egon ziren. Horrez gain, ETAK berriz ekin zien mehatxatutako jarduera-sektoreetako pertsona nabarmenen aurkako atentatu hilgarriei, esaterako: prentsa (José Luis López de Lacalle, Santiago Oleaga), enpresariak (José Luis Korta) edo botere judiziala (José María Lidón). 2000ko urriaren 22an, ETAK Máximo Casado Carrera espetxeetako funtzionarioa ere hil zuen, haren ibilgailuaren azpialdean bonba bat jarrita. 2000ko abenduaren 8an Askatasunen aldeko eta Terrorismoaren kontrako Ituna sinatu zen; ondoren Alderdi Politikoei buruzko Lege Organikoa (6/2002) onetsi zen.

2003ko martxoan, Auzitegi Gorenak legez kanpo utzi zituen EH-HB-Batasuna formazioak. 2005eko ekainean, ETAK su-etena iragarri zuen hautetsitako kargu publikoentzat. Diputatuen Kongresuak Espainiako Gobernuaren eta ETAREN arteko elkarrizketak proposatzen zuen mozioa onetsi zuen, zenbait baldintza ezarrita. Espainiako Gobernuko ordezkarien eta ETAREN arteko kontaktu gehiago egon ziren.

2006ko martxoaren 22an, ETAK su-eten iraunkorra iragarri zuen, baina abenduaren 30ean hautsi zuen, Barajasko aireportuko T4 terminaleko aparkalekuan egindako atentatu hilgarri baten bidez. 2007ko ekainaren 6an, ETAK adierazi zuen su-eten iraunkorra amaitu zela.

2010eko martxoaren 29an, Brian Currinek “Bruselako Adierazpena” aurkeztu zuen. Eta 2011ko urtarrilaren 10ean, ETAK beste su-eten iraunkor bat deklaratu zuen, orokorra eta egiaztagarria, eta urte horretako urriaren 20an indarkeria terroristaren amaiera iragarri zuen.

## 3.- Datuen azterketa eta balorazioa

### 3.1.- Datu kuantitatiboen azterketa

Atal honetan, espetxeetako funtzionarioen alderdi kuantitatiboari buruzko oinarritzko eta funtsezko alderdiak biltzen dira. Informazio horren helburua da kidego horrek azken hamarkadetan estatuan eta, batez ere, EAEn duen eta izan duen tamaina dimentsionatzea. Espainiako Gobernuko Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak (1996-2004) egindako txostenetan jasotako datuen arabera, 1996an 15.690 funtzionario zeuden, eta gaur egun, berriz, 20.000 baino zertxobait gehiago.

Demokraziaren berrezarpenak zenbait aldaketa ekarri zituen, oro har, eskubideei eta askatasunei dagokienez; horren eragina zigor-arloko esparruan eta espetxeen egoeran ere nabaritu zen. Estatua eraldaketa horrek eta inguruko herrialdeetako estandarrekin pareka daitekeen sistema demokratiko bat finkatzeak espetxeen eremu berezia egokitzea ekarri zuen. 1979ko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organiko Orokorrak, Espetxeei buruzkoak, egoera berrira egokitzeko parametroak ezarri zituen. Aldaketa horiek funtzionarioengan ere izan zuten eragina, eta egoera berrira egokitu eta garatu zituzten.

Espetxeen gaineko eskumena, Gernikako Estatutuan EAeri transferitzeko moduko eskumenetako bat bazen ere, ez da gauzatu 2021eko urriaren 1era arte.<sup>1</sup>

Eskumen horren transferentziaren unean Eusko Jaurlaritzaren mende geratu ziren espetxeetako funtzionarioak 680 inguru izan ziren (280 Zaballako espetxean, 200 Martuteneko espetxean eta 200 Basauriko espetxean). Kopuru horiek azterlan honen xede diren hamarkadetan EAeko espetxeekin lotuta dauden pertsonen kopuruaren antzekoak dira. Ziurrenik, zifra pixka bat txikiagoa zen Arabako espetxeen kasuan, Langraiz Okako espetxea egungo Zaballako espetxea baino txikixeagoa baitzen; Zaballakoa handiagoa eta modernoagoa da.

Denbora horretan, zenbait mugarri egon dira, kolektibo hori ETArek testuinguruan markatu dutenak. Zalantzarik gabe, lehena Alfredo Jorge Suar Muroren aurkako atentatu hilgarria izan zen: 1983ko urriaren 14an hil zuten, El Puerto de Santa Marían (Cádiz), udalerrri horretako espetxean mediku gisa lan egiten baitzuen. Hilketak gertatu eta egun batzuetara, ETAk bere gain hartu zuen krimena, eta komunikatu berean heriotza-mehatxua espetxeetako funtzionario guztiengana hedatu zuen (Alonso et al, 2010: 452). Hilketak horren ondoren, espetxeetako funtzionarioen kolektiboak beste atentatu batzuk jasan zituen: 1983tik 2000. urtera arte zenbait pertsona hil zituzten, beheko taulan ikus daitekeen bezala.

Hildakoak eragin zituzten atentatuez gain, ETAk beste atentatu batzuk ere egin zituen espetxeetako beste funtzionario batzuk hiltzeko asmoz; 1997ko apirilaren 17an, Juan José Baezaren kontra Errenterian<sup>2</sup>, eta 1997ko ekainaren 3an Francisco Camachoren kontra Granadan<sup>3</sup>. Hala ere, 1996ko urtarrilaren 17an José Antonio Ortega Lararen bahiketa izan zen espetxeetako funtzionarioen kolektiboan eta, oro har, gizartean eragin handiena izan zuen atentatu bat. Funtzionarioa ETAk atxikita egon zen 532 egunez, eta ETAk hura askatzeko eskatu zuen errebindikazio nagusia izan zen bere presoak euskal espetxeetan elkartzea, baita sakabanatze-politika amaitzea ere. Ortega Lararen bahiketa hainbeste denboran luzatu izana oso kolpe gogorra izan zen espetxeetako funtzionario guztiarentzat, eta tarte horretan mobilizazio ugari egin zituen haren askapena eskatzeko. ETAk 1997ko uztailaren 30era arte atxiki zuen Ortega Lara. Egundik horretan, Guardia Zibilaren operatibo batek bahitzaileak eta bahituta zegoen tokia aurkitu zituzten, eta bahitua askatzea lortu zuten.

---

1 Eskumen hori 1979ko abenduan onartutako Gernikako Estatutuaren 10.14 eta 12.1 artikuluetan jasota dago. Hitzek hitz, 10.14 artikulua dio Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena dela: «Adinera heldugabeen babes eta tutoregorako, gartzelatzeko eta gizartean berrintegrazteko erakunde eta etxeren antolaketa, erregimena eta funtzionamendua, gai zibil, gaztigu eta gartzelazkoez legegintza orokorrak dioenaren arauera». Halaber, Estatutuaren 12.1. artikulua dio Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiola espetxeen arloko Estatuaren legedia betearaztea. Ondorioz, 2021eko ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretuak, Espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko esparruan Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen dizkion eginkizun eta zerbitzuei buruzkoak, bide eman zion eskualdatze horri, zeina 2021eko urriaren 1ean gauzatu baitzen.

2 1997ko apirilaren 17an, Errenteriako bizilekutik gertu, ETAkideek tirokatu egin zuten, eta halaberrez salbatu zen.

3 Funtzionarioa konturatu zen ibilgailuaren eserlekuan ezohiko zerbitzu zegoela, eta begiratu zuenean zigilatutako kutxa metaliko bat aurkitu zuen: bonbat bat, hain zuzen. Bonba kilo eta erdi kloratita ingurukoa zen; ETAk jarri zuen, eta Polizia Nazionaleko Tedax taldekoek leherrarazi zuten, modu kontrolatuan.

**1. taula.- ETak espetxeetako funtzionarioen aurka egindako atentatuetan hildako biktimak (1978-2010).**

Data	Funtzionarioa	Lurraldea	Lanbidea eta oharrak	atentatua
1983/10/14	Alfredo Jorge Suar Muro	El Puerto de Santa María (Cádiz)	El Puerto de Santa Mariako espetxeko mediku pediatria eta doktorea	Bi etakideek medikua bere kontsultatik atera, Valdés de El Puerto kalean, eta auto batera eraman zuten. Han, tiro egin zioten lokian eta garondoan.
1989/08/11	Conrada Muñoz Herrera	Montillana (Granada)	Espetxeetako funtzionario baten ama	Bere semeari —espetxeetako funtzionarioa bera— zuzendutako liburu batean ezkutatutako bomba-pakete baten leherketak erail zuen.
1990/03/13	Ángel Jesús Mota Iglesias	Donostia (Gipuzkoa)	Espetxeetako funtzionarioa	Kalean tirokatu zuten, emazteak bere denda noiz itxiko zain zegoela. Eraikitaren unean, besoetan zuen seme jaio berria.
1991/06/28	Manuel Pérez Ortega	Sevilla (Sevilla)	Espetxeetako funtzionarioa	Bomba batek lehertuta hil zuten, Sevillako espetxean. Bomba Javier Romero Pastor zuzendariari zuzenduta zegoen. Atentatu horretan, gainera, bi preso hil ziren (Donato Calzado eta Jesús Sánchez Lozano), eta Raimundo Pérez ere bai, beste preso baten senide bat. Beste hogeita hamar pertsona zauritu ziren.
1993/01/22	José Ramón Domínguez Burillo	Donostia (Gipuzkoa)	Espetxeetako funtzionarioa	Lanerako bidean zihola tirokatu zuten.
1997/03/11	Francisco Javier Gómez Elósegui	Donostia (Gipuzkoa)	Martuteneko espetxeko psikologo funtzionarioa	Etxetik lanera bidean irten zenean, garondoan jotako tiro batez hil zuten.
2000/10/22	Máximo Casado Carrera	Gasteiz (Araba)	Espetxeetako funtzionarioa	Autoa martxan jarri bezain laster, ibilgailuaren azpian jarritako bomba batek eztanda egin eta hil zuen.

Iturria: geuk egina, lan honetan oinarrituta: López Romo (2014) eta Alonso et al. (2010)

### 3.2.- Datu kualitatiboen azterketa eta balorazioa

Lan honen ikuspegi nagusia kontuan hartuta, lana garatzeko metodologia kualitatibo bat aplikatu da. Metodologia horren oinarria elkarrizketa sakonak egitea izan da, erdiegituratuak, txostenaren helburuetan ezarritako ezaugarriak betetzen zituzten hainbat pertsonarekin: espetxeetako funtzionarioak edo funtzionario ohiak izatea, EAEko lurraldean bizi eta lan eginez. Pertsona horiek guztiek ETaren mehatxua eta indarkeria jasan dute, nola edo hala.

Atal honetan, planteatu den ikuspegi kualitatiboari esker, sakonago aztertu dira bizi

izan duten esperientzia eta jasan duten sufrimenduaren alderdi subjektiboak, datu kuantitatiboek ez baitute horren berri ematen. Datu kualitatiboak esker, denbora horretan espetxeetako erakundearen zerbitzura emandako zerbitzu publikoaren ondorioz urratutako eskubideen benetako egoera azter dezakegu.

Horretarako, 12 elkarrizketa egin dira, gidoi erdiegituratu bati jarraituz. Elkarrizketa zenbait gai garrantzitsuren inguruan antolatu da, elkarrizketatutako pertsonen erantzunak mugatu gabe, beren testigantza egokien irizten dioten moduan garatu ahal izan dezaten. Azterlanean parte hartu duten pertsonetako batzuek esan digute nahiago dutela beren izen-abizenak ez aipatzea, isilpean egon nahi zutelana-eta. Zehatz-mehatz beteko dugu haien borondatea. Horregatik, erabaki dugu agertzen diren lekukotzak elkarrizketatuaren profil generikoaren bidez identifikatzea, eta, irizpide-batasunari eusteko, gauza bera egin dugu izena plazaratzeko inolako eragozpenik ez dutela esan duten pertsonen lekukotzekin ere. Uste dugu horrela lortuko dela arreta handiagoa jartzea lekukotzaren edukian lekukoaren nortasunean baino. Kasuren batean isilpean egon nahi zuen pertsonak esandakoa zertxobait aldatu behar izan dugu aipamen geografiko edo pertsonal batzuk ezabatzeko, nor den salatzen zuten eta.

Azterlan honetan beren borondatez eta eskuzabaltasun handiarekin parte hartu dutenei eskatu zaie kontu ditzatela beren bizipenak gogoratzen eta sentitzen dituzten bezala-bezalaxe. Beraz, hausnarketarako adierazitakoa ariketa subjektiboa da, beren ikuspegitik kontatutakoa. “Memoria lantzeko” prozesuak “historia egiten” laguntzen digu, hau da, kontakizun kolektiboa ezartzen. Xabier Etxebarriak laburbildu zuenez (2007: 60-61): “Biktimen testigantza espazio publikoan adierazitako memoria gisa ikusi behar da, herritarrek memoria hori entzun dezaten, edo erabilera desberdinetarako agiri-artxibo ireki bihurtzeko, edo prozesu judizial baterako frogagiri bihurtzeko”, edo bake-hezkuntzako prozesuetan erabiltzeko. Lan honen helburua da, hurrengo kapituluan zehatzago azalduko den bezala, azterlaneko protagonista izan diren parte-hartzaileek kontatutako prozesuan gertatu diren giza eskubideen urraketak detektatzea, baita jada aztertutako datu kuantitatiboetan hauteman direnak ere. Bildutako informazioa gaikako zenbait bloketan sistematizatu da, eta bloke horietan elkarrizketetan adierazitako ideia eta bizipen nagusiak jaso dira.

Beheko taulan azterketa kualitatibo honetarako lekukotza eman zuten pertsonak zerrendatu eta identifikatu dira.

## 2. taula. *Elkarrizketatutako pertsonen zerrenda*

	Sexua	Identifikatzailea
1. elkarrizketa	Emakumezkoa	E1
2. elkarrizketa	Gizonezkoa	E2
3. elkarrizketa	Emakumezkoa	E3
4. elkarrizketa	Gizonezkoa	E4
5. elkarrizketa	Gizonezkoa	E5
6. elkarrizketa	Gizonezkoa	E6
7. elkarrizketa	Gizonezkoa	E7



	Sexua	Identifikatzailea
8. elkarrizketa	Gizonezkoa	E8
9. elkarrizketa	Gizonezkoa	E9
10. elkarrizketa	Gizonezkoa	E10
11. elkarrizketa	Emakumezkoa	E11
12. elkarrizketa	Emakumezkoa	E12

Azterlan honetarako lagina aukeratzeko, espetxeetako funtzionarioen artean ahalik eta profil ugariak biltzeko, irizpide hauek hartu dira kontuan: lan egiten zuten espetxearen arabera hautatu dira, egindako zereginen eta ardura-mailaren arabera (zuzendaritza-koordinazioa, hezitzailea, osasun-arloa, segurtasuna, etab.), sexuaren eta adinaren arabera, edo segurtasun-arrazoiengatik EAetik kanpoko destinoa izan duten kontuan hartuta. Taulan ez da elementu horietako bat ere agertzen (sexua izan ezik) elkarrizketatutako pertsona guztien anonimotasuna bermatu nahi izan dugulako, lehen adierazi dugun bezala.

### 3.2.1.- Bokazio profesionala eta espetxeetako funtzionariotzan sartzea

Elkarrizketatutako pertsonak partekatzen duten ezaugarri nagusia da guztiek ulertzen dutela lanbidea kontzientzia sozialaren eta zerbitzu publikoaren terminoetan, dela hasiera-hasieratik, dela jardunean hasi ondoren. Elkarrizketatuak ezarpen demokratikoaren esparruan jardun zuten espetxeen eremuari lotuta daude, aurrerago azalduko dugun bezala. Hala ere, gehienek adierazi dute aurrez ez zekitelako espetxeetan lan egiteak zer zekarren, eta deskribatzen dute nola horietako askok ezagutza hori lortzen duten beren lanpostuetan inkorporatu ahala:

*La verdad es que antes de entrar yo no conocía a nadie que hubiera estado en la cárcel o que hubiera sido funcionario de prisiones... La verdad es que nunca había pasado ni cerca de una cárcel, así que no conocía absolutamente nada hasta que entré. (E5)*

Lanbide horretara iristeko bideak askotarikoak dira, baina, hala ere, argi eta garbi identifikatzen dira hasierako bi planteamendu: (i) lan-irteera unean uneko testuinguruan, eta (ii) zigor-arloko eta/edo gizarte-arloko eremurako bokazio argia. Kasu gehienetan, Estatuko funtzionarioen kidegoan karrera bat hasteko aukera aipatzen da, Estatu demokratikoa egituratzen eta garatzen ari den aldiarekin bat datorrena. Hona hemen egoera horiek azaltzen dituzten testigantza batzuk:

*Yo no vine aquí por vocación. Vamos a ver, que yo vine por necesidad. Yo vine porque necesitaba trabajar y necesitaba ganar dinero. Ahora otra cosa es que luego estés trabajando, y bueno, intentas hacer las cosas lo mejor posible. (E7)*

*Yo llevo ya 31 años en prisiones. Estudio aquí en la universidad, hicimos el máster de asesoría jurídica, el curso de cooperativas, la mili, somos el baby boom y había pocas plazas. Al final, salió esto, y varios de los que habíamos hecho derecho pues nos metimos en esto. (E8)*

Aurreko iruzkinetan ikus dezakegunez, planteamenduetako bat da enplegu bat lortzea demokraziaren lehen urteetan egiten den plazen deialdiaren ondorioz. Ildo berean, espetxeen eremuan karrera egiten duten pertsonen beste profil bat ere



badago, baina lotura handiagoa duena jasotako prestakuntzarekin eta lan-eremu horrek lanbideari dagokionez sortutako interesarekin:

*De rebote nos enteramos de que había plazas de funcionario interino de instituciones penitenciarias. Básicamente era entregar en Madrid un currículum y esperar, ni examen ni nada... En aquel momento había una carencia de funcionarios de prisiones. Eché el currículum, y al de un tiempo nos llamaron, y la apelación, el número de orden, tenían que ver con las notas de la carrera. Tenía muy buen número, y pude elegir, pude ir a Bilbao. (E10)*

*Porque yo quería ser maestro, pero no de niños, sino de gente adulta. Y bueno, ya me llamó la atención, porque era gente adulta, y además con problemas, porque yo no sabía muy bien qué era un centro penitenciario. No tenía ni idea. Yo pensaba que los centros penitenciarios trabajaban para la policía, la guardia civil, lo que sea, yo no sabía lo que era un módulo penitenciario. (E2)*

*Había una cierta vocación para el servicio público, me gustaba la marginación, la delincuencia... Me parecía que entrar a una institución penitenciaria también era una manera de mejorar el mundo y de cambiar las cosas desde dentro, ¿no? Y bueno me presenté. Estuve dos años y medio... Yo creo que aprobé en el 92. (E4)*

*Ya era un campo que me llamaba cuando estaba estudiando. El tema de la delincuencia me llamaba y pude hacer las prácticas. Ese mismo año pude hacer oposiciones, a finales de los 80 yo ya había hecho oposiciones, en junio en la formación universitaria, y ese año justo salían oposiciones y me presenté. Saqué plaza y tuve la suerte de poder escoger Martutene. (E12)*

Jasotako testigantzetan, jarrera-ildo jakin batzuk detektatzen dira, oso bat datozenak irekiera demokratikoaren testuinguruarekin, zuzenbide-estatuari balioa ematearekin eta aldaketak bilatzearekin, baita espetxeen testuinguruan ere. Beheko testigantzek testuinguruarekin eta urte horietan erakunde horietan lan egiten hasi zirenen konpromisoarekin lotutako alderdi horiek islatzen dituzte:

*En aquella época estaba Suárez, le ofrecieron a Carlos García Baldés el puesto de director de instituciones penitenciarias, y él aceptó con una condición: "quiero ser redactor y ponente de la nueva ley". Lo que sería después la Ley Orgánica General Penitenciaria, que fue y es una ley muy progresista, tremendamente progresista. (...) Este hombre insufló un aire democrático en las prisiones. En aquella época, yo conocía a funcionarios... no voy a decir democráticos, pero soy de los que en aquella época juró las leyes fundamentales. (...) Había mucha gente que encontré en prisiones que queríamos cambiar la institución desde dentro. Yo me encontré con profesionales muy buenos; profesionales con licenciaturas, especialmente en derecho. (...) En aquella época, se respiraban ambientes de cambio, y nosotros pensábamos, ¿por qué en las prisiones no va a haber cambio? (E9)*

*Yo siempre he tenido mucha conciencia en mi condición de funcionaria pública. O sea, a mí, mi trabajo me gusta, mi trabajo en prisión me gusta. Y yo entiendo mi trabajo en prisión como que estoy prestando un servicio público con el que me pagan todas esas personas con sus impuestos; y yo me debo a esas personas. Eso, por un lado, esa condición de funcionaria y de servidora pública. Y luego, segundo, que para mí, y quizá lo mejor, por eso no es casual que haya acabado trabajando en un entorno como de prisiones, ¿no?, para mí la ley está por encima de todo. Y la ley es lo que nos permite vivir de forma ordenada y de forma democrática, y garantizar un estado de derecho. (E3)*

---

Trantsizioaren esparru horretan, beste zenbait elementu edo kontzientzia-izpi ere agertzen dira, kasu batzuetan, bizi zen egoera sozial eta politikoari buruz, eta, zehazki, ETAREN existentziari eta presentziari buruz. Mehatxu ezkutu bat, zuzenean edo zeharka sentitzen dena, lanbidean inkorporatu ahala familiek izandako erreakzioaren bidez:

*Mi vocación, completamente. Ya cuando estudiaba derecho, el derecho penal me atrajo muchísimo, y cuando tuve conocimiento de esta oposición y de este trabajo, pues me pareció el trabajo de mi vida. Y 28 años después, me parece aún más el trabajo de mi vida; mi vocación es total. Lo era antes y lo ha sido durante un tiempo. Y cuando yo estudié la oposición, ETA no tenía... justo en ese momento es cuando empezó. (E6)*

*Me acabé decantando por el medio penitenciario. Eso lo tenía clarísimo. Yo acabé la carrera, me apunté a las oposiciones y aprobé. Y siempre cuento como anécdota que, cuando aprobé la oposición, o iba feliz por la vida por la calle, que fuimos a ver las notas ahí a Secretaría General, y llegué a casa diciéndole a mi familia que había aprobado la oposición, ¿no? Yo toda contenta, que “he aprobado la oposición”. Y arrancó la respuesta de mi padre: “Nos has desgraciado la vida”. Esa fue la respuesta de mi padre, cuando yo llegué toda contenta. ¿Por qué? Porque cuando ya tenía la oposición en el año 93 ya habían matado a dos funcionarios en el barrio de Martutene. Entonces, sí es verdad que el entorno familiar fue como: “la que has liado”, ¿no? Como diciendo, “ya vamos a dejar de vivir tranquilos”. Sí es verdad que mi familia me recomendó: “intenta no ir a vivir al País Vasco; quédate por ahí, y tal”. Y es verdad que estuve trabajando fuera del País Vasco dos años. Y pues ahí vivías tranquila, porque bueno, ahí el clima social era bueno, no había aversión al medio penitenciario. Todo lo contrario, trabajabas en prisiones, y te echaban la alfombra roja allá dónde ibas. (E1)*

### 3.2.2.- Mehatxuak eta mehatxu-adierazpenak

Trantsizioaren testuinguru horrek berekin zekarren indarkerien eragina, eta, bereziki, ETAREN eta haren ingurunearena. Espetxeetako funtzionario gehienek oso gutxi zekiten egitate horren berri, ez eta oro har herritar gehienek ezagutzen ez zuten eta nolabaiteko estigmatizazioa jasotzen zuen erakunde bateko kide izateak ekar zitzakeen arriskuen berri ere. Hori guztia erabat aldatu zen ETAK espetxeetako lehen funtzionarioa hil zuenean (Alfredo José Suar Muro, El Puerto de Santa Mariako penaleko medikua) eta bere mehatxua kolektibo osora hedatu zuenean, 1983ko urrian. Mugarria izan zen hori; are gehiago EAeko espetxeetako funtzionarioentzat, noiz eta ETAK 1990eko martxoan talde horretako kide baten aurka (Ángel Jesús Mota Iglesias) egin baitzuen lehen atentatu hilgarria. ETAK oraindik koska bat estuago egingo zuen:

*Hubo un momento en el que ETA nos declaró objetivo militar... objetivo... al colectivo de prisiones. Pero bueno, eso a mí no me implicó mucho. Cuando mataron al compañero Mota, a Sebastián... ahí fue... muy duro. Y después, en muchos años se produjeron... Es que fue muy curioso porque nosotros no estábamos preparados para eso... Nadie está preparado para eso, eso está claro, ¿no? Pero nosotros en principio éramos funcionarios del Ministerio de Justicia. Sabíamos que teníamos un trabajo complicado, ¿no? Arriesgado, pero de los muros para dentro. (E2)*

Arriskua zuzenean ETATik eta haren ingurutik zetorren, eta arriskua batez ere EAEn bizi eta lan egiten zutenek zeukaten. ETAREN mehatxua zuzenena zen, baina beste

inguruabar batzuek ere eragina zuten espetxeetako funtzionarioengan. Mehatxua EAeko espetxeetara zabaltzen zen, baina baita beste leku batzuetako espetxeetara ere, bai funtzionario-karrera Euskadin hasi eta, Euskadin jasotako mehatxuen ondorioz, beste zentro batera joanak zirelako, bai karrera beste leku batzuetan hasi zutelako:

*Claro es que el riesgo era enorme. Cuando la gente hablaba de la violencia de ETA... Quiero decir, ETA la ejercía, evidentemente. Pero no solo ETA, o sea, si a ti te llamaba alguien por teléfono y te decía: "Fuera de Euskal Herria, cabrón", te tenías que ir; y el que te llamaba no tenía por qué ser de un comando ETA. Era algún pringado, pero bastaba con eso, ¿no? Quiero decir, ETA era la manifestación más grave, pero había una intimidación colectiva, y tú no podías arriesgarte... (E6)*

*Sí, siempre he tenido contacto con presos de ETA, pero incluso con presos que decías: "la dispersión mientras más lejos, peor". El grado de peligrosidad de los etarras... y cuando estábamos en otras CC.AA. incluso había gente calificada un poco de irreductible, ¿no? Esta gente te hacía saber: "¡Oye! Ya sé que tú estás en Bilbao...". Te hacían saber no una amenaza clara ni expresa, sino una amenaza velada. "Tú no eres ni de Jaén ni de Granada; tú eres de aquí". Y eso sí que te podía... no sé si influir tan directamente, pero luego me han influido otras cosas. (E8)*

Aurrerago ikusiko dugun bezala, espetxeetako funtzionarioek bizi izan duten (eta oraindik bizi duten) errealitatetik nabarmendu beharreko alderdietako bat da biktimarioengandik —ETAko kideenganik— duten espazio zuzena. Egoera horrek zenbait harreman eta interakzio berezi ekarri ditu biktimarioen eta ETArek existentziak eragindako —eta haren biktima izandako— pertsonen artean. Hori gertatzen da zuzeneko edo zeharkako mehatxuekin, adibidez, espetxeetako funtzionarioen informazio pertsonala jakinarazten denean. Gorago adierazi dugunez, kolektiboarentzako mehatxueta benetako mugarrira Suar erailteza izan zen, eta mehatxua kolektiboko gainerakoengana zabaltzea. Hala ere, mehatxua ez zen berehalakoan ikusi; handik denbora batera bai, zirkulua estutzen hasi zen, atentatu hilgarriak ugaritu ahala:

*Yo empiezo en el 88. ETA no había empezado a actuar contra los funcionarios de prisiones, y la verdad es que la inconsciencia, la juventud, honestamente, el fenómeno del terrorismo lo vivía como algo alejado de mí. Obviamente, reconocía la injusticia de lo que estaba pasando, pero sin que me afectara directamente, ¿no? El primer contacto que me impacta a mí fue el atentado contra la madre de un compañero con un paquete bomba en Granada, en que fallece la madre en el año 90. Ahí empezamos a sentir que la cosa se estaba poniendo seria. Yo tuve un impacto en una conversación con unos que somos de aquí, y al final tienes en el entorno a gente de todas las ideologías, y de todas las maneras de ver la vida, ¿no? (...) Y evidentemente la explosión fue el asesinato de Mota. Ahí nos abrieron un poco los ojos, porque no solo el colectivo de funcionarios de prisiones estaba amenazado, sino que trabajando en el País Vasco estábamos especialmente amenazados. Por pura lógica, éramos los más cercanos, los más próximos, con un añadido: que éramos muy pocos. (E10)*

*Como que ya estábamos amenazados de alguna manera, pero yo no lo percibí hasta que fue el atentado de Ángel. Y, además, una persona de las que vivía y hacía su vida aquí. Entonces la gente nos decía que los directores habían hablado con la Guardia Civil o con la policía, y nos decían: "Sobre todo los de aquí, sois los que debéis tener cuidado, porque aquí...". Eran sobre todo ellos los que nos transmitían que teníamos que tener*

---

*cuidado, porque éramos las presas fáciles, ¿no? ¡Cambiad las rutinas! ¡Cambiad los horarios! Empezaban con ese tipo de consejos...* (E12)

Egoera hori larriagotuz joan zen atentatu gehiago gertatu zirelako, eta José Antonio Ortega Lara bahitu zutelako. Gertakari horiek are larriagotu zituzten kolektiboaren bizi- eta lan-baldintzak:

[Francisco Javier Gómez Eloseguren hilketaren ondorioz] Ya entramos en pánico. ¿Quiénes entramos en pánico? Sobre todo, los que somos de aquí, los que vivíamos aquí. Aquí en Martutene hay como dos colectivos, los que somos de aquí de Donostia y que vivimos en nuestras casas, y un colectivo bastante amplio, la gran mayoría de la plantilla, que mientras trabajan están aquí, viviendo en los pabellones, pero el resto del tiempo están en su lugar de origen, que casi todos aquí son asturianos, de Castilla y León... Es decir, están en sus casas. (E1)

*Yo creo que el punto de inflexión... O sea, hasta Ortega Lara y Gómez Elosegui había habido unos atentados, en el año 93, 94... Pero durante esos años se quedó como una amenaza genérica. Y lo de Ortega Lara cayó cerca porque Ortega Lara estuvo trabajando en Nanclares. Y, además, eran de allí. Con Ortega Lara nos vimos un poco empujados a que las movilizaciones demandando su libertad fueran especialmente activas en Nanclares, porque nos parecía que el hecho de que viniera del País Vasco y que se reunieran funcionarios de Soria pidiendo la libertad no tenía tanto sentido como que lo hiciéramos nosotros. Y ahí empezamos a notar ya claramente ciertas limitaciones, mayores o menos, en la vida. Unos más que otros.* (E6)

Zirkulua estutzen amaitzen zen mehatxua argi eta zehatz antzematen zenean: ETak espetxeetako funtzionarioen gaineko informazioa zeukan, Estatuko Segurtasun Indarrak horren jakitun zeuden:

*Pues lo he recordado ahora en toda esta historia, la culpa de revivir, porque metieron aquí un preso de ETA que tenía mis datos. Yo cuando lo vi dentro, dije: "No me lo puedo creer". Es que, en aquella época, cuando detuvieron un comando de unos tíos, salió (información) del administrador, de un educador que está aquí... salió gente. Luego nos enteramos de dónde se había producido la filtración. A través de la nómina. Cuando se ingresaba la nómina en su día, fue coincidente, todos los que salimos en ese listado cobramos la nómina en el mismo Banco y figuraba el centro de trabajo.* (E1)

*Pues tuvimos una relación, no voy a decir de amistad, pero que yo sabía cosas de él, él de mí y tal... Y un día me dijo: “Y ¿cómo te fuiste tú a XX [indica el nombre de otra ciudad] Si trabajas aquí... Y se lo dije: “Tienes tú la culpa”. Se me quedó callado y no me dijo nada ese día, y al día siguiente fui a ver la panadería y me dijo: “He estado toda la noche sin dormir, pensando en lo que me dijiste. Dije, de verdad, cuánto daño hemos hecho a la gente, porque te digo una cosa, yo en aquella época, si me dicen que mato a un funcionario de prisiones, te hubiera matado, y no hubieras tenido a tu*

---

*niña, ni hubieras tenido a tu niño, ni hubieras tenido nada, ni nos hubieras conocido, ¿sabes? Y así es". (E5)*

*Me he tirado horas de conversación con personas que yo no sé si habrán estado en algún momento o barajando la posibilidad de pegarme un tiro, no sería para nada... Podría ser perfectamente. Yo no creo, pero puede ser que sí. Mientras que el resto, como dices, de los reclusos, bueno, pues a lo mejor casualmente, uno te robó la bicicleta... Pero tú no vas a... (E6)*

*Un funcionario de interior hace lo que puede. Y luego pide los medios específicos que sean necesarios para acabar de gestionar ese problema. Y eso los internos lo saben de sobra. Los internos no son nuestros enemigos. Tú si le preguntas a un interno o a una interna, ¿qué opinas de los funcionarios de prisiones? Siempre te dirá lo mismo, como te diría cualquier ciudadano, son unos vagos y viven de mis impuestos. Pero si le preguntas por un nombre, si le preguntas: "Y ¿qué opinas de Don José? Pero no es porque se lo exijamos, sino porque forma parte de su cultura... Y ¿qué opinas de Don José? Ah, ése, es un tío de puta madre... (E2)*

ETAko presoen eta espetxeetako funtzionarioen arteko harremanak ez dira beti errazak izan. Alde batetik, lehen ikusi dugun bezala, arrisku mota batzuk eragiten zituzten, ETAko kideek espetxeetan lor zezaketen informazioaren ondorioz. Bestalde, espetxeetako funtzionarioentzat ez ziren atseginak izaten presoekin zuten harremanaren esparruko egoerak eta bizipenak:

*Nosotros hemos tenido que trabajar con ellos. Trabajar con los etarras, con los internos etarras desde la más absoluta legalidad, llegando incluso, porque tiene que ser así, a acompañarlos en sus procesos de cambio. Y en esos procesos de cambio, confrontarlos, porque en ese proceso de cambio tiene que haber una confrontación con lo que han hecho. Y confrontarlos siendo víctimas, creo que es muy importante ponerlo en valor. O sea, eso, lo que os he dicho antes, o sea, a mí no me hables de víctimas en general, a mí no me hables del daño en general que habéis causado, del conflicto, de que todos hemos sufrido y tal. No, no, mírame a los ojos, yo he sufrido, yo he sufrido, y tú has elegido ser victimario, pero yo no he elegido ser víctima. Alguno me decía: "Pero tú sí que lo has elegido. Has elegido ser funcionaria de prisiones". Ya, pero por mi elección laboral, no tengo por qué estar expuesta a una amenaza terrorista. Y tú sí que lo has elegido; de momento, tú eliges. Que luego podemos hablar ya de esa elección... Pero tú ya has elegido y eres consciente de qué hacías cuando lo hacías. Pues, ese trabajo directo con ellos me parece importante, pero creo que eso no se conoce. (E3)*

*Y luego, a nivel personal tienes que hacer un esfuerzo, porque tú estás en ese momento viviendo una situación y estás tratando con personas que están a favor de eso que está pasando. Tengo que mantener las formas, tengo que mantenerme neutral, tengo que ser profesional... Eso sí que me supuso un esfuerzo a nivel personal. (E12)*

*Y luego los que estamos, yo creo que inmersos yo creo que... Reviví, recordar todo esto. El otro día se lo decía a un preso de ETA; me lo decía, hablando un poco, no sé... de la dispersión y tal no sé qué, y le digo: "Bueno, aquí ha habido dispersión por todos lados, lo que vosotros habéis sufrido, la dispersión digo, pero otros se han tenido que ir también". "Ya, pero la dispersión de los que se han ido ha sido voluntaria". Le digo: "Sí, te digo yo voluntaria. ¿Te explico? Que te tienes que morder la lengua. (E1)*

*Bonita dispersión dice, sí. Uno de los que se ha separado ya está fuera del colectivo, digo bendita dispersión, ¿verdad? Y me dice: ¡Sí! Es que si no llega a ser por la dispersión, no salgo de ETA. Porque no me dejaban. (E1)*

Alderdi horiek guztiek lotura estua dute edozein presok bizi duen gizarteratze-prozesuekin, baina, kasu honetan, bereziki, memoria kolektiboa eraikitzearekin eta eraikuntza hori zaildu duten (eta zailtzen jarrai dezaketen) errealitateak ikusaraztearekin.

### 3.2.7.- Oroimena eta memoria kolektiboaren eraikuntza

Memoria eraikitzekeo prozesu honetan, zeinean txosten honek espetxeetako funtzionarioen bizipenak eta bizitzan izandako eraginak biltzen lagundu nahi baitu, bada elementu bat elkarrizketa guztietan agertzen dena eta preso askok espetxeetan zigorrak betetzen jarraitzea arrazoitzen duena: atentatu hilgarri bat egin izana edo hartan kolaboratu izana. Beste delitu mota batzuekin gertatzen den bezala, delitu hori nor bere baitan hartzea prozesu pertsonalaren parte da:

*Fue un asesinato, no fue una cosa de estas... No sé a veces, pues todavía recuerdo, que comentaba una de las directoras que estaba hablando con un preso de ETA. Que estábamos a vueltas, bueno, pues dijo: “¿Y cuándo voy a poder empezar a salir de permiso?”. “Hombre, todavía... Has cumplido tanto de cuanto, es un poco pronto todavía”. Y dice: “¡Oye!, pero algún día...”. Y le dijo: “Ya, pero es que tienes varios asesinatos, y claro, eso hay que pagarlo, hijo”. Y que se le quedó... Dice: “¿Que nadie me lo había dicho nunca así de crudo!”. Y digo: “Pues eso es lo que es, o sea, tú tienes varios asesinatos, y eso hay que...”. Eso está claro, que el fin de la pena privativa de libertad está claro, pero no te olvides nunca de lo que has hecho, ¿no? Y, lo que te decía, que en él en lo que construimos de memoria colectiva, tiene que quedar claro qué situaciones ocurrieron y qué sufrimiento hubo. (E4)*

*Es que lo tienen que hacer, porque ese es su trabajo; o sea, no les debemos regalar nada. Ellos tienen que hacer su itinerario y tienen que llegar hasta aquí. No mira, cómo ha llegado hasta aquí, ¡ya está! No, no, es que tienen que llegar hasta aquí, por ellos mismos, por rehacerse y reconstruir también su... Hacerse responsables y alcanzar la paz, porque con algún preso que temía a la muerte... Es duro, ¿no? Oí en algún lado que es duro meterte a la cama, acostarte y pensar que tienes a otros nueve durmiendo contigo, ¿no? (E4)*

Eraildako kideen izenak eta haiek gogoratzeko ekimenak dira elkarrizketetatik sortzen diren gaietako bat, bizitakoaren memoriari eusteko beharrezko aukera eta formula gisa. EAEko espetxeen kasuan, bai Martutenen bai Zaballan eskultura-elementuak eta plakak daude, ETak eraildako funtzionarioak gogorarazten dituztenak.

*Uno no se olvida de ellos, ¿vale? Cuando la Guardia Civil nos dijo que iban a imputar a esas dos personas que estaban en prisión, insisto, una prisión por ahí abajo... La muerte de Máximo, yo fui a León, a ver a su viuda, hacía veintitantos años que no la veía, porque no quería que se enterara por la prensa. Y lo que dije fue que no nos habíamos olvidado de Máximo, y que sus asesinos tenían nombres y apellidos, ¿vale? Entonces se trata de que los muertos tienen nombres y apellidos y los asesinos también. Tienen que tener nombres y apellidos. Es el Estado de derecho. (E2)*

*Máximo Casado tiene un CIS<sup>4</sup> que... con su nombre. El CIS de Valladolid se llama Máximo Casado. Bueno, pues es también otra manera de reconocer. Yo la sensación que tengo, en la memoria y en el relato compartido este que tenemos que construir, está claro que las cosas tienen que quedar claras. (E4)*

<sup>4</sup> Centro de Inserción Social.

---

Memoriaren eraikuntzaren zati gisa, egindako delituagatik zigor bat betetzen ari den pertsona batek aurre egin beharreko errealitatearekin eta dinamikekin zerikusia duten alderdiak daude. Prozesu horretan, funtzionarioen lana norabide horretara bideratuta dago. ETaren kasu berezian, berriz ere agertzen da ETako presoek espetxeetako funtzionarioen biktimario gisa duten harreman “berezi” hori:

*A ver, estamos trabajando con personas que han delinquido. Todos han hecho algo, quiero decir, si trabajas en este ámbito, tienes que estar preparado para trabajar con todo tipo de personas y con todo tipo de hechos que hayan podido cometer, ¿no? Y en ese sentido yo intento normalizarlo, ver que es un colectivo más que tiene sus características y sus necesidades, un colectivo más con el que tengo que trabajar. No le doy más vueltas en ese nivel, y luego dentro del colectivo hay diferencias también entre ellos: hay personas que están en fase de salir adelante y superar esto, que no lo van a tener fácil porque creo que no van a poder superarlo nunca por mucho que se esfuercen, incluso personas que hayan hecho una reflexión y que hayan llegado a conclusiones de que se equivocaron, de que causaron mucho daño... Hay personas que están en ese proceso y personas que no. Dentro del colectivo hay muchas posturas y muchas reflexiones diferentes sobre lo que han hecho o en lo que han participado. Pero para mí son personas con las que tengo que trabajar, igual que el resto. (E12)*

*Pero poner cara y voz, y hablar con una persona a ellos, en el fondo lo remueve. Lo que pasa que claro, se quieren proteger también, ¿no? ¿Qué necesidad tengo de sufrir si me quedan dos años para mi libertad! ¿Qué necesidad tengo yo de encontrarme con alguien que me cuente lo mal que lo ha pasado por mi culpa. (E1)*

*El hablar directamente con ellos en un tú a tú y el decirles: “Háblame a mí, aquí tienes una víctima, ¿qué le dirías a una víctima? ¿Qué me dirías a mí?”. Y eso, a mí me supuso una liberación, y eso a mí también me supuso también el aprender a cómo acompañar a esos procesos de esas personas que se querían desvincular. Entender también que esas personas han hecho cosas terribles, y que, si se quieren desvincular, si yo no soy capaz de ayudarles, o sea, que venga otra persona y que les ayude. Les tenemos que ayudar a que lo hagan. Y, yo tengo que reconocer que sí que he tenido situaciones y casos en donde sí que se ha hecho un proceso realmente profundo en torno al reconocimiento del daño causado y de petición de perdón. Y de sufrimiento, porque yo sí que les decía, ¿no? Me decían: “Es que lo estoy pasando mal con esto, ¿no?”. Lo tienes que pasar mal, es que lo tienes que pasar mal, es que lo que has hecho es abominable. Ponle el calificativo que quieras, me da igual, pero es abominable. Y es que es algo, que como ser humano, si es que eres humano, como ser humano, que te tiene que dejar destrozado. Es importante que sientas ese dolor, y que, a partir de ese dolor, reconstruyas y repares. Pero necesitas pasar por ese dolor. (E3)*

Elkarrizketatutako pertsonak oroimena azpimarratzen dute, eta oroimen hori beste belaunaldi batzuei transmititzea. Beharrezkoa da, eta kontu handiz ibili behar da. Kolektiboaren barruan zuzeneko biktimak (kasu honetan, hildako lankideak) oroitzeagatik, memoria partekatu bat sozializatzegatik, bizitako eta jasandako errealitateak biltzeko:

*Yo tengo el recuerdo de la Guerra Civil. Empecé a conocerla cuando tenía 21 o 22 años, porque en casa no se hablaba de la guerra. Entonces, yo no quiero que pase esto. Esta situación que hemos pasado en el País Vasco de violencia, que no pase lo mismo en las generaciones futuras. Y luego la universidad... que sea un poquito la encargada... digo en este caso Deusto, puede ser la UPV, de difundir y de hacer estudios, que es*

*altamente positivo. A veces, mantener estos silencios lo que hace es incrementar los fantasmas, y que vayan en aumento. Hay que saber transmitir esta memoria y estos sentimientos, ¿no? (E9)*

*Y la sorpresa que nos encontramos es el desconocimiento que tienen los jóvenes de lo que pasó hace 15 años. Me acuerdo la primera vez que participé en Adi Adian, de la persona que me acompañaba, yo hablaba de Galindo, del impostor revolucionario, hablaba de Vera, y al final dice la persona que venía conmigo:*

*“¡Oye! Estás hablando con personas de 16 años que no conocen a Vera”. Yo daba por hecho lo que era el impuesto revolucionario, pero no lo sabían. Me tenía que adaptar a ese nivel, un desconocimiento, y eso es algo que he visto en los 12 años que llevo. A veces, yo he pensado, ¿no?, ¿por qué estos jóvenes no lo saben? Claro, los padres quizá con un sentimiento, afán de protección... Lo pasamos tan mal, o fue una situación tan dura que prefiero no transmitir a mis hijos e hijas este sufrimiento. (E9)*

*Elosegui. Quién conoce a Elosegui ya. Es que aquí hablas a la plantilla, hablas de los Elosegui y por lo menos los que estábamos en aquella época, que seremos 10-12, el resto no sabe quién es Elosegui. Y los usuarios nuevos cuando entran se quedan mirando. Ese fue el que mataron, pero no hay un... no sé, no, no, si no se interioriza, no sé. Claro, ten en cuenta que mi plantilla, es una plantilla muy joven, los funcionarios de aquí, es gente que... que no ha estado en los años 90 en prisiones, que no has sabido lo que es mirar debajo del coche. Solo funcionan los nuevos, que han entrado como mucho hace diez años. Es una prisión joven, por decirlo de alguna manera. Y porque la gran mayoría de los que estuvieron/estuvimos aquí en los años 90 a 2000, se han ido. (E1)*

*A la gente... eso le interesará justo a los que lo tenemos más cercano. Pero eso igual que a las víctimas. La sociedad, cuando se deja de matar y se va pasando el tiempo, esa sensación ya no es de angustia. La angustia la va a tener el hijo, la mujer, el marido de los más cercanos. Y el tema de ETA, ¿a quién le preocuparía el tema de ETA? Pues cada vez a menos, a la asociación de víctimas del terrorismo, pero yo creo que al resto de la gente no tanto. Y bueno, nosotros los funcionarios de prisiones, yo creo que somos bastante invisibles. Así como la policía, la Ertzaintza, la gente los ve, nosotros somos... Incluso creo que tienen una visión llamativa... Mira, si ves la película de policías y ladrones, ¿quién es el bueno? Muchas veces el policía, y el malo el delincuente. Pero, cuando ese delincuente entra en prisión, ¿quién es el malo? El funcionario, que está ahí puteando. ¡Fíjate lo malos que somos! (E8)*

## 4.- Atzeman diren giza eskubideen urraketan kalifikazioa

Espetxeetako funtzionarioak ETaren mehatxua jasan zuen kolektiboetako bat izan zen. Hori intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin bizi izan zen, funtzionarioen lantokiaren arabera, baina inoiz ez zioten ETaren helburu izateari utzi. Atentatuak jasan zituzten etxera edo lantokira bidalitako bonba-gutunen bidez, ibilgailu partikularretan jarritako bonben bidez; bahitu egin zituzten, eta haietako batzuk hil ere bai (tiroen edo bonben ondorioz). Horregatik, zenbait babes-neurri (eta autobabes-neurri) bultzatu ziren haien osotasun fisikoa bermatzeko, baina, zoritxarrez, ezin izan zen helburu hori lortu egoera guztietan. Aurreko ataletan, azaldu dugu egoera horiek pertsona horien bizitza nola baldintzatu zuten. Zehazki,



---

EAEko hiru espetxeetakoren batean lan egiten zuten pertsonengan jarri dugu arreta. Testuinguru horretan, mehatxua agerikoagoa zen, eta haien eguneroko bizitzako alderdi asko baldintzatzen zituen. Bizi izandako egoera hori anomalia gaiztoa izan zen; izan ere, pertsonen oinarrizko eskubide ugari urratu zituen, etxeko zein nazioarteko ordenamendu juridiko demokratiko guztiek aginduzko, utziezin eta besterenezin gisa aitortutako eskubideak. Datozen lerroetan, hautemandako urraketak eta zehazki bortxatutako zuzenbidea jasoko ditugu.

Besterik gabe funtzio publikoan jarduteagatik, lanbidean norberaren borondatez aritzeagatik, horregatik bakarrik mehatxu eta erasoen bidez jazarria izateak ordenamendu juridikoko gorengo baloreak urratzen ditu, hala nola, nortasunaren garapen askea<sup>5</sup>, eta zehazki, ideologia-, kontzientzia- edo pentsamendu-askatasuna<sup>6</sup> eta adierazpen-askatasuna.<sup>7</sup>

Aurreko orrialdeetan jasotako testigantzen bidez egiaztatu ahal izan da ETaren zuzeneko helburua izateak (espetxeetako funtzionarioak) zuzeneko eta zeharkako mehatxuak zekartzala berekin. Eta mehatxu horiek, urteak joan eta urteak etorri, halako arrasto emozionala utzi zieten pertsona gehienei, estres iraunkorra edo trauma osteko estresa. Mehatxuak atentatu bihurtu ziren, behin baino gehiagotan, eta zauri sendaezinak eragin zituzten; baita, batzuetan, heriotza bera ere. Ildo horretatik, pertsonen integritate fisiko eta moralerako eskubidea<sup>8</sup> urratu zen eta kasu larrietan bizitzarako eskubidea ere bai<sup>9</sup>.

Babes-neurriak (edo autobabeseakoak) erabili beharrak norbere bizitzan sortzen dituen muga eta galerei dagokienez, eman diren testigantzetan argi eta garbi ikusten da askatasun eta segurtasunerako eskubideari eragiten diola<sup>10</sup>, zeren eta gizarte demokratiko batean inori ezin baitzaio askatasuna kendu, legeak ezarritako kasuetan izan ezik. Hau da, Estatuak baino ezin du askatasuna murriztu, eta murriztu ere legeak ezarritako kasuetan bakarrik. Hemen jasotzen ditugun kasuetan, murrizketa hori modu bidegabean eta arbitrarioan ezarri zuen ETak, kolektiboari egindako mehatxuaren ondorioz. Babes-neurri askoren ondorioz —eta, batez ere, autobabesekoen ondorioz—, zirkulazio-askatasunak berezkoa duenaren kontrako muga bat sortu zuten bizi-egoera batzuetan. Are gehiago: kasu batzuetan, pertsonaren osotasuna bermatzeko, gomendatu zitzairen, eta, zenbait kasutan, horretara limurtu

---

5 Espainiako Konstituzioaren 10. artikulua jasotzen du. Aipatzeko modukoa da Nazio Batuen Asanblada Orokorraren 1981eko azaroaren 25eko Adierazpenan egiten den printzipio horren aitortza, erlijio eta sinesmenak direla eta sortzen diren bazterkeria- eta intolerantzia-mota guztien desagerepenari buruzkoa. Adierazpen horren 1.2 artikulua honela dio: «Ezin izango da inor behartu, bere aukerako erlijio edo sinesmena edukitzeko askatasuna murrizteraino».

6 Esan gabe doa, printzipio hori oinarrizkoa edo funtsezkoa da edozein estatu demokratikotan. Xedapen hauetan jasotzen da: Espainiako Konstituzioaren 16. artikuluan, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren (GEEH) 9. artikuluan, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren (Nizako Gutuna) 10. artikuluan eta 1976ko martxoaren 23ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren (EZPNI) 18. artikuluan.

7 Aurreko eskubidea bezalaxe, hainbat testuk jasotzen dute eta ezinbestekoa da hura zaintzea. Espainiako Konstituzioaren 20. artikulua, GEEHren 10. artikulua, Nizako Gutunaren 11. artikulua, EZPNIren 19. artikulua.

8 Egonkortasun emozionalari edo osasun psikologikoari eragiten zaizkionak aipaturiko integritate moralerako eskubidearekiko interferentziak dira. Izan ere, pertsonen bizitzarako eta integritate fisiko eta moralerako eskubidea da Espainiako Konstituzioaren II. kapituluko lehenengo atalean (Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak) jasotzen den lehenengo eskubidea, 15. artikuluan. Nizako Gutunaren 3. artikuluan ere jasota dago.

9 Espainiako Konstituzio Auzitegiak zein Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hierarkia bat ezartzeari uko egin diote Giza Eskubideen aitortzari dagokionez; izan ere, horiek guztiek maila bera dute askatasun publikoaren ohiko egikaritzean eta ordenamendu juridikoaren balio gorena diren aldetik, estu lotuta daude pertsonaren duintasun-printzipioarekin (EK, 10. artikulua). Hala ere, aurrekoa horrela den arren, bizitzeko eta integritate fisiko eta moralerako eskubideak betekizun ontologikoa dira eta hori gabe gainerako eskubideak ezin dira existitu. Bizitzarako eskubidea GEEHren 2. artikuluan, Nizako Gutunaren 2. artikuluan, eta EZPNIren 6. artikuluan jasotzen da.

10 Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren (GEDU) 3. artikulua, GEEHren 5. artikulua, Nizako Gutunaren 6. artikulua, eta EZPNIren 9. artikulua.

ere bai, beste destino batera joan zedin, eta horrela oinarrizko eskubide bat urratu zen, hau da, lanerako eskubidea eta lanbidea askatasunez aukeratzeko eskubidea. Egoera horrek, jatorriz EAEko funtzionarioak izanez gero, bizilekua aldatzea ere ekarri zuen. Egoera hori gertatu zen, orobat, EAEn ez bizitzea eta lan-txanda bakoitzean beren bizilekutik (beste autonomia-erkidego batean kokatuak) joan-etorrian ibiltzea erabaki zuten pertsonekin. Kasu horietan guztietan, bizilekua askatasunez izateko eskubidea urratu zen<sup>11</sup>. Senideen kasuan, beste eskubide batzuei ere eragin zien. Esate baterako, senide adingabeei dagokienez, bizilekua aldatu beharrak gizarte-bizitzako azturak ez ezik eskolaratzeko modua ere aldatu zuen, sarritan ikastetxe berria bilatu behar izan baitzuten. Kasu horietan, hezkuntzarako eskubidea urratu zela uste dugu, batez ere gurasoek seme-alabei beren balio eta sinesteen araberrako hezkuntza eskaintzeko eskubidea<sup>12</sup>. Elkarrizketetatik bildutako eta aztertutako informazioan ikusi ahal izan dugun bezala, horrek eragina izan zuen baita EAEn bizi zirenean ere. Inguruabar horietatik eratorritako beste alderdi bat haien presentzia publikoa mugatzea izan zen. ETaren zuzeneko helburu izateak eta mehatxupean egoteak baldintzatu egin zuen lanbidea esplizituki agerian geratzen zen ekitaldi publikoetan parte hartzeko aukera (jardunaldiak, hitzaldiak, sentsibilizazio-jarduerak, etab.). Azkenik, bistakoa bada ere, nabarmendu beharra dago atal honetan aipatutako eskubideen aurkako erasoak urratu egin zituela Espainiako Konstituzioaren 1. artikuluan jasotako ordenamendu juridikoko gorengo balio guztiak, batez ere askatasuna, justizia eta berdintasuna.

## 5.- Ondorioak eta gomendioak

Txosten honek artzen duen denbora-tartean, espetxeetako funtzionarioek ETaren mehatxua eta indarkeria jasan zituzten, eta oinarrizko eskubide jakin batzuen urraketa jasan zuten modu ilegítimoan, arbitrarioan eta bidegabean, eta urraketa horien biktimek ez zuten izan defendatzeko edo egoera horri buelta emateko ahalmenik izan. Terrorismoaren dinamikak, 1983. urteaz geroztik espetxeetako funtzionarioen gaineko mehatxua esplizitu egin zuenetik, gizarte demokratiko batean itundutako elkarbizitzarekin guztiz bateraezinak diren ezohiko egoerak sortu zituen; hain zuzen ere, pertsona batzuen oinarrizko eskubideak eta funtsezko askatasun publikoak urratzen zituzten eta. Kolektibo hori osatzen zutenengan (eta oraindik osatzen dutenengan) izan duen eraginak bere ordaina ekarri du, pertsona horien osotasun fisiko eta moralari dagokionez. Bi arloak (banakoa eta kolektiboa) konpondu behar dira, osagai komun batzuk eta zenbait fase edukiko dituen prozesu baten bidez. Lehenik eta behin, gertatutakoaren kontaketa bidezko bat taxutu behar da, ororen buru biktimek jasandako bidegabeko oinazea ipiniko duena, haienganako enpatia-prozesu bat lortu ahal izateko. Horixe da, hain zuzen ere, txosten honen helburu nagusietako bat. Oro har, ETaren eta haren ingurunearen indarkeria hori jasan zuten pertsonen kopurua zehaztu gabe dago oraindik. Hala ere, kasu honetan, esan daiteke mehatxuak espetxeetako funtzionario guztiei eragin ziela urte

---

11 Bizilekua askatasunez aukeratzeko eta joan-etorrietarako eskubidea xedapen hauetan jasotzen da: Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua, GEEHren 4. protokoloaren 2. artikulua, Nizako Gutunaren 45. artikulua eta EZPNren 12. artikulua. Berriz esan behar da: pertsonen oinarrizko eskubide hau Estatuak beste inork ezin du mugatu, eta legeak ezarritako arrazoiengatik.

12 Berririo diogu: hezkuntzarako eskubidea herritarrek botere publikoei exijitzen dieten eskubidea da; baina, kasu honetan, kanpoko eragile bat da eskubidea erabat egikaritzea eragozten duena. Gurasoek beren sinesteen araberrako ikastetxea hautatzeko eskubidea Espainiako Konstituzioaren 27.3 artikulua bermatzen du. Horrez gainera, GEEHren protokolo gehigarriaren 2. artikuluan, Nizako Gutunaren 14. artikuluan, GEDUren 26. artikuluan, EZPNren 18. artikuluan eta EESKNren 13. artikuluan ere aitortzen da eskubide hori.

---

horietan, baina indar handiagoz EAEko hiru espetxeetan lan egiten zuten (eta bizi ziren) pertsonen. Hirugarren atalean jasotako zifrak errealitate horretara hurbiltzeko erreferentzia bat baino ez dira. Eta informazio kualitatiboak lagundu eta bideratu egiten gaitu hain beharrezkoa den hurbilketa horretan.

Ildo horretan egin beharreko beste urrats bat da proposamenak egitea, iritzi publikoan hausnarketa kritikoari bide emateko eta eztabaida bat bultzatzeko oroitzenari eta memoriari buruz eta ETaren indarkeria jasan duten biktimek eta pertsonen behar duten erreparazioarako bideak bilatzeari buruz. Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak egindako aurreko txostenetako metodo bera erabili da txosten hau egiteko, helburuetako batzuk ere berak dira eta. Haietan bezala, Nazio Batuek oroimenerako eskubidearen prozesua egiteko finkatutako esparrua hartu da erreferentzia modura ondorioak eta gomendioak prestatzeko; prozesu horrek honako hiru ardatz hauek dauzka: egitarako eskubidea, justiziarako eskubidea eta erreparazioarako eskubidea.

Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen arlotik, zenbait egilek eta erakunde ahaleginak egin dituzte giza eskubideak urratu zaizkien biktimek erreparazioarako eskubidea formulatzeko, oinarritzat hartuta estatuek beren gain hartzen duten obligazioa, nazioarteko itunak, estatuen ordenamendu juridikoetan txertatutakoak, betearazteko eta aplikatzeko, batetik, eta biktimek eskubide-urratzen konponketa jasotzeko duten eskubidea, bestetik<sup>13</sup>.

Atal honen helburua da dei bat egitea euskal iritzi publikoari gertaera hauen gainean gogoeta egin dezan, memoria errestituatibo bat eraiki dadin eta biktimek pairatutako sufrimenduarekiko enpatia sor dadin. Atal honen azken zatian, norabide horretan bultzatu beharreko neurri eta gomendio batzuk aztertuko dira.

## 5.1.- Memoria eta egia. Espetxeetako funtzionarioen estigma

Felipe Gómezek (2006: 37-40) dioten moduan, “memoriaren beharriak bi urrats behar ditu, ezagutzea eta aitortzea”. Egia eta gertaerak ezagutzea, eta biktimek sufrimendua aitortzea. Fase honek, beraz, ez die eragiten (eta mesede egiten) bakarrik oinarritzko eskubideak urratu zaizkienei, gizarte osoari baizik eta, bereziki, erakunde publikoei, oinarritzko eskubideak babesteko eta bermatzeko erantzukizuna duten heinean. Memoriaren gaineko kontakizuna ez da ariketa abstraktu bat; aitzitik, helburu zehatzetan oinarritutako bizipen horien benetako gertaerak jaso behar ditu nolabait:

*-Indarkeriaren bidegabekeria aitortzen laguntzea eta, beraz, baita indarkeria hori jasan duten biktimek errugabetasuna ere.*

*-Giza eskubideen urraketa guztiak onartezinak direla onartzea, bai eta kontatzen diren gertaerak ere.*

*-Bizi izandako egoeretan zenbait elementu patologikok (tolerantziarik eza, aniztasunaren bazterketa, norberaren iritziak indarrez inposatzea, gizabanakoa ukatzea...) izan duten eginkizuna ulertzea.*

*-Memoriak orainaldiarekin lotuta egon behar du eta, are gehiago, orainaldia azaltzen lagundu behar du. Iragan kaltegarriari begiratzen diogu eta azertu egiten dugu,*

---

<sup>13</sup> Gure proposamenen, lan hauei jarraituko diegu: Gómez Isa (2006) eta Múgica (2009: 119-137).



*oraingo balio irmoetatik abiatuta. Nahitaez saihestu behar da Martinez de Bringasek memoriaren fetitxismo deitzen zuena; orainaldia menperatzen duten iraganeko dinamikak. Ariketa politiko horrek Hannah Arendtek (2009) gaizkiaren hutsalkeria deitu zuena sortzen du.*

Hala ere, memoria abstraktua lantzea ariketa antzua izan daiteke, aipatu ditugun geroagoko bi faseetara bideratuta ez badago. Alde batetik, justiziara bideratutako memoria izan behar du, eta, horrek, aurrerago ikusiko dugun bezala, esan nahi du kontatutako gertaerak ezin direla errepikatu. Bestalde, memoriak egon behar du bideratuta guztiz anomaloa izan den egoera bat sendatzera. Hori dela eta, memoria ez litzateke gauzatu beharko herratik edo gorrototik, baizik eta gertatu dena ulertzera jo beharko luke (ulertzea, iraganaz jabetzea), etorkizunerantz adiskidetasunez aurrera egiten duen gizarte dinamiko bateranzko alde aurreko hausnarketa-urrats gisa. Espetxeetako funtzionarioen kasuan, kontuan hartu behar dira jasan dituzten baldintzak; izan ere, kolektibo horri buruz gizarte osoak duen irudi estereotipatuak haien lanbidearen egiarekin lotutako alderdi horietako asko desitxuratu ditzake.

## 5.2.- Justizia eta erreparazioa. Biktimen eta biktimarioen arteko harreman berezia

Justiziari buruz ari garenean, ez gara soilik ari justizia-auzitegien lan jurisdikzionalaz, zeinaren helburu nagusiak inpunitatea eragozteko izan behar baitu. horregatik daude eta ETako kideak espetxean, egindako krimenengatik kondenak jaso dituztelako. Ari gara pentsatzen, baita ere, gizarte osoak, iritzi publikoak, egin dezakeen lanaz biktimarioek biktimei eta bizikidetzaren demokratikoari ostu dietena sendatzen, erreparatzen eta leheneratzen lagundu dezakeenari buruz. Era berean, erakunde publikoek (gorago adierazitakoez gain) zeregin garrantzitsua izan dezakete eta izan behar dute. Gure ustez, justizia lortzera bideratutako ekintzak helburu hauek izan behar ditu:

*-Biktimen sufrimenduari buruzko enpatia, hau da, lagun egitea eta elkartasuna adieraztea. Aurreko fasean genioen moduan, jasandako sufrimenduari buruz inguruan kontakizuna eraiki duen gizarte batek bidegabekeria hori aitortu behar du, eta eskubideak urratuta eduki zituzten pertsona horiekin sentibera izan behar du. Komeni da azpimarratzea, lehen esan bezala, horrek ez duela esan nahi biktimen ideologiarekin ados egotea (Múgica, 2009: 131). Desadostasun politikoa zilegi da gizarte guztietan, eta beharrezkoa da, hain zuzen ere, justiziaren prozesua eta eztabaida ideologikoa bereiztea. Hortxe dago, baita ere, eskuzabaltasun demokratiko eta desberdinen arteko bizikidetzaren ariketa garrantzitsu bat.*

*-Datu kualitatiboan azterketan agerian utzi dugu espetxeetako funtzionarioek estigmatizazio sozialeko prozesu bat jasan zutela. Beharrezkoa da pertsona horiei errehabilitazio soziala eta morala eskaintzea. Kendutako edo zalantzan jarritako balioa eta duintasuna berriro itzultzea. Haien funtzio soziala duintzea, batez ere biktimarioei dagokienez.*

*-Gainera, gure ikerketaren helburuko pertsonak lanbidean askatasunez jarduteagatik ez beste ezergatik mehatxatuak eta jazarriak izan baitziren, beharrezkoa da haien erresilientziaren balioa nabarmentzea, bai eta kostu pertsonal handia ordainduta ere beren eskubideak baliatzen tinko jarraitzeak duen balioa ere.*

---

*-Biktimen galera konponezina da. Ezinezkoa da eragindako kaltea erabat ordaintzea. Inork ezin dizkie biktimei itzuli lapurtutako denbora, galdutako aukerak, emandako tratu ankerra, deuseztatutako integritate fisiko eta morala eta, are gutxiago, senideren bat hil zietenean. Gizarteak biktimei eskain diezaiekeen erreparazio-modu bakarra, ahula bada ere, hainbeste sufrimendu sortu zuen iraganaz bestelako etorkizun bat eraikitzea da. Horrek beste fase bati ekitera garamatza: ulertzea eta adiskidetzea.*

*-Orain arte esandako guztiagatik, justiziak errestitutiboa ere izan behar du. Europar Batasuneko legeriak ematen duen definizioaren arabera, justizia errestitutiboa hau da: "biktimek eta arau-hausleek, horretarako baimena askatasunez ematen badute, zigor arloko arau-haustearen ondoriozko arazoei irtenbidea ematea ahalbidetzen duen prozesua, hirugarren inpartzial baten laguntza"15 .*

Dagoeneko aipatu dugu memoria gauzatzeko moduari buruzko alderdi garrantzitsu bat (erresuminaz edo gorrotoaz harago), espetxeetako funtzionarioen lanean zentralitatea izan duena eta gaur egun ere duena, eta bereziki kontuan hartu beharrekoa memoriari, justiziari eta erreparazioari ekitean.

### 5.3.- Ulermena eta adiskidetze soziala. Aitortzaren garrantzia

Gizarte-adiskidetzea, komunitate-politika den aldetik, memoria, justizia eta leheneratzeko prozesu guztien azken helburua da. Adiskidetzetik gabe, bakea su-eten bat izango litzateke, luzeagoa edo laburragoa, eta gizarte-haustura gailenduko litzateke. Fase honetan, beharbada, biktimen barkamena egon daiteke, baina baldintza hori ez dugu hemen sartu, oso ekintza pertsonala eta borondatezkoa baita, eta ezin da inoiz halakorik eskatu. Barkamenaren ordez, ulertzeko baldintza sartu dugu. Bere garaian, Hannah Arendt-ek ulertzeari eta adiskidetzeari buruz hitz egin zigun:

Adiskidetzea halabeharrez ulertzearekin batera doanez, horrek gaizki-ulertu bat ekarri ohi du, arruntean: *tout comprendre c'est tout pardonner*. Hala ere, barkamenak ia-ia ez dauka zerikusirik ulertzearekin, ez baita horren baldintza, ezta ondorioa ere. Barkamena (zalantzarik gabe, gizakiaren gaitasun handienetako bat, eta, beharbada, ekintzarik ausartena, itxuraz ezinezkoa dena —egindakoa desegitea— egiten saiatzen delako, eta dena amaituta zegoela dirudienean, hasiera berria ezartzea lortzen duelako) ekintza bakarra da eta ekintza bakar batean amaitzen da. Ulertzeak, ordea, ez dauka amaierarik, eta beraz, ez du egiazko emaitzarik sorrarazten; gizakien bizimodu espezifikoa da, gizabanakoak arrotz bezala jaio den munduarekin adiskidetu beharra daukalako, eta mundu horretan arrotz bezala jarraituko du beti, bere bakartasun espezifikoa dela-eta... Totalitarismoa ulertzeak ez dakar barkamena berekin, aitzitik, halakorik gerta daitekeen munduarekin adiskidetu ahal garela esan nahi du. (Arendt, 2002: 17-18).

Egile alemaniarraren definizioaren arabera, ulertzeak adiskidetzeko prozesu politikoaren giza alderdiak eta gizartearenak aintzatestera bultzatzen gaitu. Ondorioz, adiskidetzea honela definitu daiteke: topaketa publikoaren prozesua, non tarteko pertsonak komunitate politiko gisa aitortzen duten jasandako oinarritzko eskubideen urraketa eta bidegabekeriak onartezinak direla. Prozesu hori harremanen

esparru berria eraikitzeko oinarria da, eta esparru berri horretan giza harremanen etikarekiko eta arau demokratikoekiko begirunea bide bakarrak dira etorkizunean sor litezkeen auziak konpontzeko, betiere gertaera horiek berriro ez gertatzeko helburuari begira (Nordquist, 2008: 491-497).

ETaren eta bere ingurunearen indarkeriaren kasu honetan, biktimarioek berek adierazi behar dute, irmotasunez adierazi ere, adiskidetzeko konpromisoa, eman dugun definizioarekin bat etorrira. Adiskidetzeko prozesu baterako ezinbesteko urratsak dira, batetik, bidegabekeria eta kaltea egin dela berariaz eta zintzotasunez adieraztea, eta bestetik, iraganeko akats berdinak ez errepikatzeko konpromisoa adieraztea. Adiskidetzeko prozesua berez luzea izango da eta oztopoz beteta egongo da, irain, susmo, gaitzespen, aurreiritzi, gaizki-ulertze... ugari gainditu beharko dituelako. Sentimendu negatibo asko daude metatuta eta horrek esan nahi du erakunde pribatu eta publikoek topaketa-foroak antolatzeke lan handia egin beharko dutela, erakunde horiek baitira hausnarketa-prozesuen gidariak edozein gizartetan. Biktimen eta biktimarioek komunikazio-espazioak izan beharko lituzkete adiskidetzeko gizarte baterako konpromisoa adierazteko, bizi izandako trauma hutsaltzeko edo ahazteko, jasandako kolpeak biktimarioei itzultzeko tentazioak ezabatuta.

#### 5.4.- Prozesu hau gauzatzeko Eusko Jaurlaritzari aurkeztutako iradokizunak

- Herritarrei jakinaraztea eta zabaltzea ETaren mehatxupean bizi izan diren espetxeetako funtzionarioek jasan zuten bidegabeko sufrimendua, haien ikuspegia kontuan hartuta, gertatutakoaren kontaketa jaso dezan jasanarazitako kaltearen ikuspegia. "Biktimen ikuspegia aintzat hartzea behar-beharrezkoa da egiazko diskurtso etikoa eratzeko, batez ere indarkeriaren gaiari heldu nahi bazaio. Are gehiago, seguruenik, biktimen ikuspegia hartzeak erabateko iraultza etikoa ekarriko luke." (Bilbao eta Etxeberria, 2005: 34).*
- Espetxeetan egiten den lana ezagutaraztea, espetxeetako funtzionarioen lanari buruz izan daitezkeen estereotipo eta iruditeriatik harago.*
- Biktimen jasandako indarkeria, erasoak eta jazarpenak ez erlatibizatzea, egoera saihestezina izan balitz bezala edo espetxeetako funtzionario izateak eta lanbideak berez dakarren karga bat balitz bezala. Biktimarioek beren ekintzen gaineko erantzukizuna dutela ulertzea.*
- Espetxeen errealitatea egiazkotasun handiagoz azalduko duten fikziozko eta arte-sorkuntzako lanak sortzen laguntzea eta sustatzea, bai eta, pairatutako indarkeriaren kasuan, biktimen ikuspegia jasotzea ere, herritarrei haienganako enpatia-prozesuan laguntzeko.*
- Herritarrek kontzientziaztea espetxeetako funtzionarioek eta espetxe-sistemak delituak eta krimenak egin dituztenak birgizarteratzeko lanean duten rolari buruz.*
- Espetxeetako funtzionarioenganako aitortza publikoa sustatzea, estigmatizatutako pertsonak diren aldetik. Inor ez da atzean utzi behar gizarte justu bat eraikitzeko lanean, batez ere isilpean eta baztertuta edukitzeko ahalegin bidegabea jasan zuten pertsonak.*

- 
- Funtzionarioen lanaren dimentsio etiko eta soziala azpimarratzea, presoen birgizarteratzera bideratua, haien delitua eta zigorra edozein direla ere.*
  - Erakunde publikoek jarraitzea txosten honetan salatzen diren praktikek urratutako elkarbizitza zibikorako kulturaren erreparazio-lana egiten, eta jarduera horien gaitzespen berariazkoa sustatzen.*
  - Txosten honen berri zabaltzea, nonahi entzun daitezten bildutako lekukotzen ahotsa eta azaltzen diren giza eskubideen urratzeen salaketa eta kontatutako jazarpen-esperientziak.*

Gogora Institutuak (Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua) asko lagundu dezake topaketak, bizipen-trukeak eta eztabaidak suspertzen, EAEko eremu publikoak jakin dezan beren lanean zihardutela terrorismoaren jazarpena pairatu zuten pertsonen bizi izandakoaren berri.

- Ekintzak koordinatzea beste autonomia-erkidego batzuetako gobernuekin edo Gobernu Zentralarekin, honen antzeko beste azterlan batzuk abiarazteko, ETArekin mehatxua jasan zuten espetxeetako funtzionarioen errealitateari beste ikuspegi geografiko batzuetatik heltzeko.*
- Iritzi publikoaren esku jartzea egindakoaren autokritika egin duten ETArekin kideen edo mehatxuen sorlekuren inguruko pertsonen lekukotzak. Biktimei egindako kaltea eta gizarte osoaren elkarbizitza demokratikoari onartzeko prozesuan, komenigarria da hausnarketa-espazioak egotea giza eskubideak urratu dituzten pertsonen berriz gizarteratzeko bideari ekin ahal izan diezaioten modu publikoan.*



---

## 6. Bibliografía

- Alonso, Rogelio; Domínguez, Florencio y García Rey, Marcos (2010). *Vidas Rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*. Madrid: Espasa.
- Arendt, Hannah (2002). “*Comprensión y política (Las dificultades de la comprensión)*” en *Daimon, Revista de filosofía*, 26: 17-30.
- Arendt, Hannah (2007). *Eichmann Jerusalem* Klasikoak SA.
- Azurmendi, José Félix (2014). *ETA de principio a fin. Crónica documentada de un relato*. Donostia: ttartalo.
- Bermúdez, Ángela y Sáez de la Fuente, Izaskun (2023). *El pasado que somos: acercamiento crítico a las memorias personales y colectivas*. Madrid: La Catarata.
- Bilbao, Galo y Etxebarria, Xabier (2005). *La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco*. Bilbao: Bakeaz.
- Bilbao, Galo (2007). *Víctimas del terrorismo y reconciliación en el País Vasco*. Bilbao: Bakeaz.
- Domínguez, Florencio (2017). *Las claves de la derrota de ETA. Informe del Centro Memorial de las víctimas del Terrorismo*, nº 3. Vitoria-Gasteiz: Fundación Centro para la Memoria de las Víctimas del Terrorismo.
- Elorza, Antonio (coord.) (2000). *La historia de ETA*. Madrid: ediciones Temas de hoy.
- Etxebarria, Xabier (2007) *Dinámicas de la memoria y víctimas del terrorismo*. Bilbao: Bakeaz.
- Fernández Soldevilla, Gaizka y López Romo, Raúl (2012). *Sangre, votos, manifestaciones: ETA y el nacionalismo vasco radical 1958-2011*. Madrid: Tecnos.
- Fernández Soldevilla, Gaizka (2018). “*A sangre fría. El asesinato de José Antonio Pardines (y sus antecedentes)*” en Fernández Soldevilla, Gaizka y Domínguez Iribarren, Florencio (coords.) *Pardines. Cuando ETA empezó a matar*, pp. 77-127, Madrid: Tecnos.
- Gesto por la Paz (2000). “*Violencia de persecución*” en *Palabras de Paz*, 40, sept.
- Garmendia, José María (2000). “*ETA: nacimiento, desarrollo y crisis (1959-1978)*” en Elorza, Antonio (coord.) *La historia de ETA*. Madrid: ediciones Temas de hoy: 77-162.
- Gómez, Felipe (2006). “*El derecho de las víctimas a la reparación por violaciones graves y sistemáticas de los derechos humanos*” en Gómez, F. (dir) *El derecho a la memoria*, pp. 23-75. Bilbao: Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe, Universidad de Deusto.
- Jauregui, Gurutz (2000). “*ETA: orígenes y evolución ideológica y política*” en Elorza, Antonio (coord.) *La historia de ETA*, pp. 171-267, Madrid: ediciones Temas de hoy.
- Joinet, Louis (1997). *La cuestión de la impunidad de los autores de violaciones de los derechos humanos (civiles y políticos)*. Informe final en aplicación de la decisión 1996/119 de la Subcomisión de prevención de las discriminaciones y protección de las minorías. Disponible en <http://www.derechos.org/nizkor/doc/joinete.html>
- López Romo, Raul (2014). Informe Foronda. *Los contextos históricos del terrorismo en el País Vasco y la consideración social de sus víctimas 1968-2010*. Vitoria-Gasteiz: Instituto Valentín de Foronda.



López Romo, Raúl (2014). “*Historia y memoria: las muertes de Juan Antonio Euseverri*”. Grand Place, 1: 101-104.

Mateos San José, Juan José (2019). *Los verdugos voluntarios*. 8ª edición. Badajoz: Editamás Editorial.

Marín-Peña, Javier; Opatow, Susan y Rodríguez-Carballeira, Álvaro (2011). “Amenazados y víctimas del entramado de ETA en Euskadi: un estudio desde la teoría de la exclusión moral” en *Revista de psicología social*, 26 (2): 177-190.

Martínez de Bringas, Asier (2006). “De la ausencia de recuerdos y otros olvidos intencionados. Una lectura política de los secuestros de la memoria” en Gómez, F. (dir) *El derecho a la memoria*, pp. 267-294, Bilbao: Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe, Universidad de Deusto.

Múgica Munárriz, Guillermo (2009). “Algunos retos y tareas de un futuro post-ETA” en Duplá, A. y Villanueva, J. (coords.) *Con las víctimas del terrorismo*, pp. 119-137, Donostia/San Sebastián: Gakoa.

Nordquist, Kjell Åke (2008). “¿La verdad de quién? ¿Cuál reconciliación? Sobre la reconciliación como concepto político” en *Estudios de filosofía*, pp. 491-497.

Opatow, Susan (1990). “Moral exclusion and injustice: an introduction” en *Journal of Social Issues*, 46 (1): 1-20.

Pérez, Kepa (2005). *La violencia de persecución en Euskadi*, Bilbao: ADDH y Gobierno Vasco.

Pérez Pérez, José Antonio (coord.) (2021). *Historia y memoria del terrorismo en el País Vasco*. Volumen I: 1968-1981, Almería: Confluencias.

Pérez Pérez, José Antonio (coord.) (2022). *Historia y memoria del terrorismo en el País Vasco*. Volumen II: 1984-1994, Almería: Confluencias.

Pérez Pérez, José Antonio (coord.) (2023). *Historia y memoria del terrorismo en el País Vasco*. Volumen III: 1995-2011, Almería: Confluencias.

Sánchez, Manuel y Simón, Manuela (2021). *Historia de un desafío. Cinco décadas de lucha sin cuartel de la Guardia Civil contra ETA*. Barcelona: Ediciones Península.